

ailkor.

TXORIERRIKO
MUSIKA GIDA
20. ORRIALDEAN

TOKIKOM

2026ko ekaina · #269



TXORIERRIKO MUSIKARIAK

Eszena(tokiak)

XXIII. LEZAMAKO

TXAKOLIN EGUNA

2026KO EKAINAREN 7A
11:00 ~ 17:30 HILARIO ASTORKI PLAZAN

EGITARAUA

- 11:00** **Kurutze Dantza Taldeko** kalejira
Jarraian dantza agerraldia **Euskaldun Berria** plazan
- 12:30** Kortxo ateratzea, brindisa eta 2026 urterako Lezamako Txakolinaren enbajadorearen izendapena: **Ekidazu Abesbatza bere 25. urteurrenean**
Jarraian herriko **Ekidazu Abesbatza** eta bertsoak **Arkaitz Estiballes** bertsolariarekin
- 15:00** **Taberna Ibiltaria**

Umeentzako tailerrak goizean zehar udaletxeko atzekaldean
36 postu bertoko produktuekin (eztia, gazta, ogia eta euskal pastela, barazkiak, kontserbak, foie, artisautza...)



ANTOLATZAILEA

Lezama ko Udala

LAGUNTZAILEA



aikor.

Argitaratzailea:

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:

Mikel Reina Barros

Argazkiak eta maketazioa:

Aner Mentxaka Alvarez

Administrazioa eta publizitatea:

Ruth Bilbao

Kolaboratzaileak:

Jon Legarreta
Iñaki Eguskizaga
Juanjo Ortiz
Jone Goitisolo Uriarte
Irati Gañan Rodriguez
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka
Estitxu Pérez Castro

Albisteak:

txorierrri@aikor.eus | 688 864 135

Kudeaketa:

aikor@aikor.eus | 747 406 561

Administrazioa eta publizitatea:

admin@aikor.eus | 688 782 642

Inprimategia: Gertu**Banaketa:** Pac publicidad**Ale kopurua:** 8.000**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 5 Gutuna
- 5 Albiste laburrak
- 10 **Sondikako jaiak**
- 13 Zozketak
- 14 **Txoriberri**
- 16 **Txorierriko musikariak**
- 20 **TXORIERRIKO MUSIKA GIDA**
- 30 EMAUS
- 31 Neurodoinuak
Musikak salbatuko gaitu
- 32 Menditik patxadaz
Jugatx (i)
- 34 Herbarioa
Hirusta gorria
- 36 Sukaldaritza
Jakiei zaporea indartzeko pastillak
- 37 Denbora-pasak
- 38 Ekaineko agenda



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BABESTUTAKO HEDABIDEA



IRITZIA

Ilargiaren inguruan bueltaka

Bost mende begi-keinu bat besterik ez dira eskala kosmikoan, baina sekulako erauntsia giza teknologiantzat. 1522an, Victoria ontziak Sanlucar de Barramedan atrakatu zuen, Juan Sebastian Elkanoren agindupean. Lurraren lehen zirkumnabigazioa osatu berri zuten. 2026ko apirilaren 10ean, NASAren Artemis II misioak antzeko bidaia bat marrazten du, ez gure planetaren inguruan, baizik eta Ilargiaren inguruan, gizakia inoiz iritsi ez den distantzia bateraino lau astronauta eramanez.

Lehen begiratuan, XVI. mendeko egurrezko ontziak, gaur eguneko titaniozko aleazioekin eta plasma motoreekin alderatzea erromantizismo anakroniko baten ariketa dirudi. Bi espedizioetako bat bera ere ez zen jaio kolonizatzeke edo hiriak sortzeko bokazioarekin; joan-etorriko bidea posible zela frogatzea zen haien funtsezko helburua.

Elkanok ez zuen munduari bira ematea aurreikusit; ozeano gogor baten geo-

“Artemis IIak, espazio sakonean gizakiaren distantzia errekorra haustean, kosmosa handitze digu eta Lur txiki baten irudia bueltatzen digu”

grafia eta geopolitikak behartu zuten etengabeko itzulera ibilbide hori hartzera, bizitza eta espezien karga balioetsua salbatu nahi bazituen. Artemis II misioan, ingeniartzak ausardia hori imitatzen du itzulera libreko ibilbidea deritzonaren bidez. Victoria ontziak korronte globalak eta haize alisioak aprobetxatu zituen bezala portu etsaiak ukitu gabe nabigatzeko, Orion kapsulak Lurraren eta Ilargiaren grabitate konbinatua erabili zuen.

JON LEGARRETA
Fisika Zientzietan doktorea



Isolamenduaren kudeaketan ere badago antzekotasun bat, XVI. mendeko marinela "itsaso ilunean" barneratu ziren, euren errealitatearekiko lotura guztiak moztuz. Artemis II-ko astronautek, Ilargiaren alderdi ezkututik igarotzean, irrati-isiltasun absolutua izan zuten. Komunikazio eklipseko une horretan, giza zaugarritasunaren pisua Elkanoren tripulazioak Indiako Ozeanoaren erdian sentitu zuen berbera da.

Azkenik, bi misioek gure espazio balioren eskala birdiseinatzen dute. Elkanoren zirkumnabigazioak Lurra txikituz, ozeanoak lotuta zeudela eta mundua eskura zegoela modu enpirikoan frogatuz. Artemis II-ak, espazio sakonean gizakiaren distantzia errekorra haustean, alderantzizko efektua lortzen du: kosmosa handitzen digu eta Lur txiki baten irudia bueltatzen digu.

Elkanok lurreko globalizazioaren ateak ireki zituen; Artemis II-ak gure espezieak planeta arteko eskalarako duen pasaportea balioztatzen du.

Izartzako auzo eskola (II)

“Landaren erdian, landa berde horren erdian, inguru aberatsean, euskal mendiak inguratzen dabezen intimitate estuan, ume euskaldunek egunero sei ordu igaro behar dabez usain txarreko eraikin batean, airerik eta argirik barik, hizkiak eta izpiritua atzerrikoak dabezen liburu bati arreta emanaz, maisu-maistren hitzak ulertu barik...Eskola horretan, ikasleek eta maisu-maistrek ez dabe elkar ulertzen; urteak daroaz elkarbizitzan, baina ez dira komunikatzen.”(María de Maeztu: *Enseñanza primaria*, II Congreso de Estudios Vascos). Ba, bai, horrerik gehitu behar jakon baserriak edo auzotik eskolara joateko sarritan hiru kilometro edo gehiago bide txar batetik ibili behar zirela, eta sarritan gainera, Luis Eleizalde, orduko Hezkuntza Inspektoreak, esanda,

pedagogia despotikoa bat jasateko. Hori da eta, erreza zan ulertzea bertaratze falta ugari izatea edo horren ondorioa Bizkaian analfabetismoa handia egotea.

Baldintza horretan, landa eremuan, batez be, egin behar zana oso grafikoki azaldu eban ahaldun nagusiak: “Mendiak eskolara joan ezin baeban, eskola joan behar zan mendira”.

Pentsaera horregaz erradikal liberala zan Juan Gallano diputatuak 1919ko azaroaren 26an ehun auzo eskola (50 mutilentzat eta beste 50 neskentzat) bost urtetan eraikitzeke mozia aurkeztu eban eta hurrengo urtean diputatu guztien botoagaz, baita monarkikoekaz, onetsia izan zan. Obrak berehala hasi ziran Mendatako Albiz eskolatik hasita (1921ean) Izartzako eskolararte, hau 100.a izanda (1928an). Errepublikara garaietan beste 28 egin ziran.

IÑAKI EGUSKIZAGA
Abokatu erretiratua



Pedagogia aldetik esan daiteke *Eskola Barriaren* metodoak erabiltzen zirela: gorputz-zigorrik ez, sistema memoristikoa bez...eta euskera aldetik elebitasuna izango litzateke helburua, euskal eremuan euskeraz irakatsi, gaztelania derrihorrezko ikasgaia izanik, eta gaztelaniazko ereduaz gaztelaniaz erabili eta euskara hautazko ikasgai bakarrik.

Baina 1917an, nazionalistek gehien-goia lortu ebenean, sustatuko planteamendu hau, monarkikoek 1921ean atzera bota eben, 1919an Diputazio gehien-goia lortu eta gero. Ordutik, gaztelania eta gaztelaniaz idatzitako testu-liburuak bihurtu ziran eskolen ikasteko bakarrak. Halandabe, Errepublikan zeozer berreskuratu zan, Izartzako liburutegi ibiltarian 169 liburu egoen, horretarik 30 euskeraz idatziak.

GUTUNA

Garaiak borroka eskatzen du

Krisia, faxismoa, gerrak, bizitzaren garestitzea, ideia erreakzionarioen gorakada... mundua hankaz gora, eta gure herria babesgabe. Bada, horrenbeste zalapartaren artean, sarri ez da erraza izaten etorkizuna argitasunez ikustea. Baina tarteka, bada argi-izpirik, eta hain zuzen, horixe izan da Ernairen IV. Kongresua. Duela hilabete inguru ehunka gaztek amaiera eman genion urtebeteko prozesu kolektibo sakonari, eta sinetsita gaude oinarri sendoak jarri ditugula Euskal Herrian zabaltzen ari den ziklo politiko berriari erantzun ahal bezain asmatuena emateko.

Horregatik, Ernaiko kideok misio nagusi bat aitortu diegu geure buruei: gazteria askapen prozesura batu eta gazte independentistak sortzea. Izan ere, Euskal Herrian posible da aldaketa sozial eta politikoa gauzatzea, eta gure egitekoa da aldaketa hori gazte eremutik hauspotu eta gazteria horren baitan agente aktibo bilakatzea. Uste baitugu, ezelako zapalkuntzarik gabeko Euskal Herri askea eraikitzeko, nahitaez independentzia behar dugula.

Era berean, bi konpromisotan berretsi gara. Batetik, Euskal Herria askatasunera eramateko konpromisoan; beraz, askapen prozesuak eskatzen duen adinako bultzada emateko konpromisoa hartzen dugu. Bestetik, Euskal Herriko

gazteriarekiko hartzen dugun konpromisoan; gazteriarren nahi, behar eta kezkek politizatu eta agendaren erdigunean kokatzera goaz, ondorioz, gazte oro duintasunez bizitzeko lan egingo dugu aurrerantzean ere.

Hortaz, Ernai eraberritua, zentrala eta zabala dugu. Zentrala, nazio auzia erdigunean jarri eta gazteria balio horietan politizatzeke ardura dugulako. Berriz, zabala, Ernai ahalik eta gazte gehienentzako elkargunea eta borrokarako tresna nagusi izateko anbizioa baitugu. Izan ere, Ernaik garaiko arazoei erantzuteko erreminta eta albait gazte gehienentzako erreminta duen antolakundea izan nahi du.

Hau guztia, ortzi-muga argi batekin: Euskal Herri aske, sozialista, feminista eta euskalduna. Inoiz baino indar eta konbentzimendu handiagoz borrokatze- ra goaz, Euskal Herrian askapen prozesua muturreraino eramatea posible delako, eta guk ez diogulako aukera honi ihes egiten utziko.

Garaiak borroka eskatzen duen neurrian borrokatuko baitugu gazte independentistok. Txorierriko gazte, batu nazio askapen mugimendura, batu Ernaira!

Maialen Olabarrieta eta Etxahun Artetxe, Txorierriko Ernaiko kideak



Ekainaren 13an Iruñean batzeko deia egin du Euskalgintzaren Kontseiluak

Iruñeko Gazteluko Plazan, Euskalgintzaren Kontseiluak eta ehundik gora euskaltzalek agerraldi jendetsua egin zuten maiatzaren 11an, Iruñean antolatuko duten Euskaltzaleon Martxari buruzko informazioa emateko. Iruñea “euskaltzale guztien bilgune” bilakatu nahi dute. Martxaren hiru zutabeak 17:00etan abiatuko dira Antoniuttitik, Runako Parketik eta Askatasun Enparantzatik, 18:00ak aldera Gazteluko Plazan bat egiteko. “Ofizialtasun osoa, jautzia hizkuntza politiketan eta euskaltzaletasuna” aldarrikatuko dituzte *Euskaraz bizitzeko behar den dena* lelopean. “Martxak aldarrikapena eta ospakizuna uzartuko ditu, euskaraz bizitzeko beharrezkoak diren baldintzak eskatzeko eta euskaltzale izatearen harrotasuna balioan jartzeko”, adierazi dute.

26/27 ikasturteko **aurrematrikula**

aek euskara praktikoa

EUSKARA-IKASTAROAK

20. ik. ostirora	APIRILA	1	2	3	4	5	6	7
		8	9	10	11	12	13	14
		15	16	17	18	19	20	21
		22	23	24	25	26	27	28
		29						

30. era arte **EKAINA**

TXORIERRIKO AEK

ABANTAILAK

- Ikasturte honetako **preziolari eutsi**.
- Ordainketa malguagoa.
- Lehentasuna taldeak eratzeko orduan.

Ekainaren 30.era arte, www.aek.eus webgunean edo AEKren edozein euskaltegitan.

Informazioa eta izena emateko: Txepetxa euskaltegia, Gorbea kalea 5, behea-Derio 94 454 39 67 - 607 59 87 94 txepetxa@aec.eus





Emantzipa laguntzak, epea zabalik

Aurten, 23 eta 29 urte artekoek izango dute hilean 300 euroko laguntza hori jasotzeko aukera, gehienez bi urtez. Orain arte, beharrezkoa zen gutxienez 25 urte izatea, baina iaz aurreratu zuten moduan, gazteen emantzipazioa errazteko laguntzak malgutu ditu aurten Eusko Jaurlaritzak. Helburu dute Araba, Bizkai eta Gipuzkoako gazteen emantzipazio tasa gutxienez %50 izatea da; orain, 18 eta 34 urte artekoen %32 soilik bizi dira familiaren etxetik kanpo, eta, batez beste, 29,8 urterekin egiten dute alde handik, Europan baino hiru urte eta erdi beranduago. Emantzipa laguntza jasotzeko, urtean 3.000 eta 30.000 euro arteko diru sarrerak izan behar dira, 36.500 euro bikoteen kasuan. Eskatzeko azaroaren 30ean itxiko da, Jaurlaritzak zeregin horretarako esleitutako aurrekontua aurretik amaitzen ez bada behintzat. Eskerak Jaurlaritzaren webgunearen bidez egin daitezke, baita aurrez aurre ere, Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan.

BERRI LABURRAK

Imanol Arriortua, Euskadi Fundazioko kide berria

Euskadi Fundazioak Txirrindularitza Egokituaeren egitura berri bat jarri du martxan eta bertan dago txirrindulari derioztarra, Mikel Aristi bere pilotuarekin batera. “Ekimen honek mugak hautsi eta mugarik gabeko kirol bikaintasuna ikusaraztea du helburu”. Aurrerapauso garrantzitsutzat jo dute Euskadi Fundazioetik Txirrindularitza Egokituaeren aldeko apustua eta egiturazko sendotasunaren isla dela diote. “Taldearen sorburua mugarri bat da gizarte mailan eta, bide batez, Fundazioa Euskadiko erreferente gisa duen estatusa ziurtatzen du horrek”. Arriortua ikusmen-urritasun batekin bizi da 10 urte zituenetik, eta munduko Paraziklismoaren “errealitate handientakotako bat” dela erakutsi duela uste dute. 2024ko Zuricheko Munduko Txapelketan

zilarrezko domina eta brontzezko domina zintzilikatu zituen ordekako proban eta erlojupekoan, hurrenez hurren. Iaz, laugarren izan zen erlojupeko Munduko Txapelketan, eta seigarren ordekan, esprintean eroriko bat izan ondoren. 2026ko helburuei aurre egiteko, Arriortuak gidari itzela du: Mikel Aristi Euskadi Fundazioko txirrindulari profesional ohia. Maniagoko Europako Txapelketak, Italian, ekainaren 12tik 14ra, Espainiako Txapelketak (uztailak 3-5, Melillan), eta batez ere Alabaman (Estatu Batuak) irailaren 4tik 7ra jokatu diren errepideko Munduko Txapelketak izango dira denboraldiko helburu nagusiak Arriortua eta Aristirentzat. Los Angeleseko 2028ko Olinpiar Jokoetarako sailkatzea da beraien erronka epe ertainean.

Ekologia Sakonaren gaineko tailerra eskainiko dute uztailean, Larrabetzun

Tailerrak talde praktikak dira, bizitzaren amaraunarekin eta emozio sakonenekin konektatzen lagunduko dutenak. Irene Fernandez Malagatik Larrabetzura etorriko da eta tailerren gidaria izango da. Ekologia Sakonak bizitza erdigunean jartzea proposatzen du, gure erantzukizun sozial eta ekologikoarekin berriz konektatzeko. “Gero eta ikaragarriagoa den errealitate batek

sortzen digun beldurraren, amorraren edo antsietatearen aurrean, askotan defentsa-mekanismo gisa insentsibilizatu egiten gara”. Joanna Macyk, ingurumen-ekintzailea, sendatze pertsonal eta kolektiboko praktika garatu zuen, ekologia sakonaren filosofian eta sistemen teorian oinarritutakoa: “Birkonektatzen Duen Lana, bihotza eta gure ekintzak lerrotzatzen lagun diezakeguna”.

E. Bilbao Bidaiak 

autobus zerbitzuak

eneko@bilbaobidaiak.eus
663 231 001

www.bilbaobidaiak.eus

KAFETEGIA · OKINDEGIA

LÀ MODERNA

Egunero, 06:00etatik zabalik



Aretxalde, 64 · LEZAMA · 946 095 091

**ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA



Politeknika Txorierriko Batxilergoko ikasleek Kaixo Munduaren lehen saria irabazi dute cyberbullyingari buruzko proiektu batekin

Batxilergoko 2. mailako Politeknika Txorierriko ikasleek PUNTUEUS Fundazioak antolatutako KaixoMundua.eus lehiaketaren VII. edizioko Batxilergo kategoriako lehen saria lortu dute. Joan den maiatzaren 15ean eman zioten saria EITBren Bilboko egoitzan, eta Alaitz Aramburuk, Ibon Lekuek eta Julen Gorostizagak egindako lana saritzen du. Saveme.eus webgunea garatu zuten, cyberbullyingari buruzko proiektu bat, arazo horri hurbileko ikuspegi erabil-

garri batetik aurre egiteko baliabideak eta informazioa eskaintzen dituen.

Epaimahaiak bereziki nabarmendu zuen proiektuaren originaltasuna eta diseinu profesionala, eta ziberjazarpena bezalako gizarte-problematikari nola heltzen dion baloratu zuen. Proposamenak atentzioa eman zuen sormena, erabilgarritasuna eta egitura digital oso landua uztartzeagatik, eta horri esker, lehiaketaren edizio honetan aurkeztutako proiektu ugarien artean

nabarmendu ahal izan zen taldea.

Saveme.eus webgunea cyberbullyingarekin lotutako orientazioa eta baliabideak eskaintzeko sortu zen, gazteentzako formatu erabilerraza eta pentsatua erabiliz. Emaidza teknikoaz gain, ikasleek egungo errealitatearen parte diren gaiekiko duten sentsibiltatea ere islatzen du proiektuak, eta teknologia eragin positiboa sortzeko nola erabil daitekeen erakusten du.

Politeknika Txorierri bereziki baloratzen dituzte horrelako ekimenak, gizartearekin konektatutako testuinguru praktikotaban gaitasun digitalak, sormena, komunikazioa eta pentsamendu kritikoa lantzeko aukera ematen dutelako. KaixoMundua.eus lehiaketak helburu hori du, hain zuzen ere: euskarazko eduki digitalen sorkuntza sustatzea eta benetako proiektuen bidez gaitasun teknologikoak garatzea.

Aurtengo edizioak parte hartze handia izan du Euskal Herri osoan, 68 ikastetxek, 1.413 ikaslek baino gehiagok eta 527 taldek parte hartu dute. Testuinguru horretan, gure ikasleek lortutako aintzatespenak ikasturtean zehar egindako lana balioesten du eta teknologia, euskara eta sormena batera garatzen diren proiektuak bultzatzearen garrantzia indartzen du.



HEGAN EGITEKO AUKERAK

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa

Zure superboterea garatu

Eman izena
POLITEKNIKATXORIERRI.EUS



Errebale, Gaztelumendi eta Anguleri kaleak, norabide bakarrekoak

Maiatzaren 26tik aurrera Larrabetzuko erdiguneko Errebale, Gaztelumendi eta Anguleri kaleak norabide bakarrekoak dira. Basagurenalde eta Gaztelumendi kaleak Errebale kalearekin lotuko dituen bide bat zabaldu dute Lezamarako noranzkoan eta beste biak, Morgarantz, norabide bakarrean dira.

Cestero kalean 45 aparkaleku berri sortu dituzte

Sondikako Udalak norabide bakarreko errepide bihurtu du Cestero kalea, zirkulazioa hobetzeko eta aparkaleku gehiago sortzeko helburuarekin. Autoak uzteko 45 plaza berri sortu ditu horrela. Egungo bide markak ezabatu eta aparkaleku berriak margotu dituzte, kalearen alde bietan. Halaber, oinezkoen pasabideak, geldialdi lerroak eta zirkulazioaren noranzko berrira egokitutako geziak berritu ditu, kalean norabide bakarra ezarritik. Horrez gain, zenbait garajetarako sarbideak egokitzen ari da, sarre-irteerak erosoagoak izan daitezzen.

BERRI LABURRAK



Alazne Etxebarria sondikoztarrak duela ia 40 urteko marka bat hautsi du

Alazne Etxebarriarentzat beste errekor bat. 400 metroko bere lasterketa kutunean, baina erreleboka eta Euskal Selektzioarekin. 1987tik zegoen 4x400 modalitateko errekorra hautsi du Leonen bere taldekideekin batera. Noa Sevilla, Alazne garrido, Alaine Agueralde eta Etxebarria bera izan dira mu-

garri berria ezarri dutenak. Super Amara BAT taldea ordezkatzeko 3.44.38ko marka ezarri zuten, duela ia 40 urteko marka lau segundogatik hobetuz. Gauzak horrela, gainera, Leongo topaketan, Super Amara BAT taldeak Ohorezko Mailako taldekako garaikurra irabazi du lehen aldiz.




Derioko Altxa Burua taldea, aurkeztuta

Maiatzaren 9an osatu zuten aurkezpena, Kultur Birikan. Altxa Burua alkartea gurasoz eta irakaslez osatutako mugimendua da eta helburu dute umeen eta nerabeen osasun fisikoa eta emozionala zaintzea eta teknologiarekiko harreman osasuntsuak finkatzea. Derioko aurkezpenak gogoeta eta adin ezberdinentzako jarduerak praktikoak uztartu zituen: "Goizeko ordutegian, helduek *Generación Click* dokumentalaren emanaldiaren ostean, teknologiak haurtzaroan duen eraginari buruzko eztabaida ireki batean parte hartu zuten. Bitartean, txikienek Supituki Antzerki Taldeak gidatutako antzerki jolasen tailerraz gozatu

zuten. Espazio horretan, 9 urtetik gorako umeek inprobisazio zein antzerki jolasen bidez irudimena eta sormena garatu eta euren aisaldirako tresna baliagarriak bereganatu zituzten". Altxa Burua alkartea Gipuzkoan sortu zen 2023an mugikorren eta mota guztietako pantailen erabilera goiztiarrak eta gehiegizkoak ekartzen zituen kalteak ikusita, guraso taldeak antolatuta zirenean. Orain, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, Altxa Buruak 200 talde baino gehiago ditu dagoeneko eta egunetik egunera talde gehiago sortzen ari dira. Txorierri ere badago talde oso aktiboa eratuta, baita inguruko herrietan ere.

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserniko ogia
Bizkotsuak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

BERRI LABURRAK

Ganbe, Aldekone auzoetako eta San Isidro elizaren inguruko bizilagunak, aparkalekuaren erabilera egatik kezkatuta

Udalerritik kanpoko ibilgailu kopurua handitzen ari da, eta, zenbait kasutan, pertsona horiek gune horiek autoa uzteko eta ondoren aireportura joateko erabiltzen ari direla uste dute. Antzeko egoeraren bat ere antzeman da Astikeneko industrialdean. Egoera horren aurrean, udalak “beste urrats bat” eman nahi izan du egoera zehatz-mehatz ezagutzeko, eta zonalde horietako aparkalekuari buruzko azterlan tekniko bat egiteko eskatu du. “Eskuragarrari dauden plazen benetako erabilera aztertzea da helburua”, azaldu dute. Horretarako, lanketa ia 2 hilabetez osatuko dute,

eta, horiei esker, okupazioa, matrikulen erregistroa eta ibilgailuen jatorria zehaztu ahalko dituzte, eta horrela, Derion edo kanpoan bizi diren pertsonenak badira ikusi. Azterketa lanegunetan zein asteburutan egingo dute, hainbat ordutegitan, egoeraren irudi osoa lortzeko. Informazio horri esker, udalak egoera baloratzeko datu “objektiboak” izango dituela uste dute. “Azterlan honi esker, aparkalekuaren erabilera benetako argazkia izango dugu, eta udalerraren beharrei modu arduratsuan erantzun ahal izango diegu”, adierazi du Esther Apraiz alkateak.

Lezama Bizkaiko 41. Abesbatzen Eguna hartuko du ekainaren 14an

Lezama hartuko du ekainaren 14an Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak urtero antolatzen duen Abesbatzen Eguna. Egun osoko egitaraua antolatu dute 41. Abesbatzen Egunerako. Ekainaren 14an 10:45ean jarri dute abesbatza guztiak elkartzeko hitzordua udaletxe aurrean. Abesbatzak eta gertukoak autobusez zein garraio publikoan ailegatuko dira Lezamara. 11:00etan entsegu labur batzuen ostean, kalejiran aterako dira eskolatik. 12:15ean kontzertu nagusia es-

kainiko dute, Euskaldun Berri Plazan. Bertan, haur eta gazteek, ahots lodiek, helduen ahots zuriek eta ahots nahasiek parte hartuko dute. Emanaldia amaitzeko Txanton Piperriren azken ereserkia abestuko dute denek batera. Eguerdian, 13:00etan, haur eta gazten abesbatzentzako herri kirolak osatuko dituzte eskolan. Anaitasunezko bazkaria frontoian egingo dute 15:00etatik aurrera. Azkenik 18:00etarako itzuliko dira abesbatzak bakoitza bere herrira.



Kabiak LGTBQ+ Fobiaren aurkako eguna eta harrotasunaren eguna ospatu ditu

Kabia gune feministak, Musika Mintegiaren eta hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen laguntzarekin, LGTBQ+Fobiaren aurkako eta LGTBQ+ harrotasunaren eguna ospatu zuen, Txorierriko Institutuan. Ikasleek beren identitateagatik edo orientazio sexualagatik diskriminazioa jasaten dutenekin enpatizatze-ko eta horren inguruan gogoeta egiteko dinamiketan parte hartu zuten. Eta ostegunean, jolas-orduan, zuzeneko musika eta koloretako artilezko harildun performance bat osatu zuten. Gainera, Batxilergoko ikasle talde batek LGTBQ+ kolektiboaren egungo egoerari buruzko hausnarke-tak eta aldarrikapenak partekatu zituen, eta “errespetuaren eta berdintasunaren aldeko deia” egin zuten ikasgeletan eta ikasgeletatik kanpo. “Erantzuna oso ona da beti, eta oso garrantzitsua da ikasle guztiak institutuan errekonozituak eta seguruak senti daitezen”, adierazi dute.



SUKALDEAK
insukaldeak.com

BILBAO
T. 94 402 82 54

Lehendakari Aguirre 175-177.
48015 Bilbao

DERIO
T. 94 656 85 69

Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.
48160 Derio



**NAHI
DUZUN
SUKALDEA**

25 urteko esperientziak bermatzen gaitu.
Doako finantzaketa.



T MIKEL REINA BARROS 📷 JUANJO ORTIZ

SONDIKAKO JAIK

San Joan jaiak, beti bezain parte hartzaileak

San Joan suak herri denetan egiten dira, baina gutxitan dira Sondikakoa bezain bereziak. Antzeko zerbait gertatzen da, adibidez, inauterietan. Ospakizun bete-betekoa da sondikoztarrentzat, eta horrela ospatu nahi izaten dute. Ekainaren 19tik 24ra bitartean ospatuko dituzte jaiak, egitarau antz, oparo bezain erakargarriekin.

Hirugarren urtez jarraian, Sondikako Udalak herriko kuadrillen iritziak hartu nahi izan ditu kontuan. Proposamenak luzatzeko aukera eman zuten eta erantzuna “oso ona eta positiboa” izan dela baieztatu du Deñe Sarria Ibarrondo kultura zinegotziak. Iaz 14 kuadrillek parte hartu zuten, eta aurten ere antzeko zenbakiekin ari dira

lanean. Azpimarratu dute asko direla errepikatu dutenak eta kuadrilla berriek ere eman dutela izena. “Oso pozik gaudela kuadrillen erantzunarekin, kolore berezia ematen diete jaiak”.

Hori gutxi ez, eta 2025eko urte amaieran Azterna gazte taldea sortu zen Sondikan. Hauek ere kontuan izan nahi izan dituzte egitaraua osatzerakoan.

Kontzertuak antolatzerakoan iritzia eskatu diete, eta Azternatik jaurti zuten aurtengo kartelburu nagusia: Bengo. Gainera, herriko eta inguruko taldeei keinu bat eginez, LC27 taldeak kontzertua eskainiko du zapatu arratsaldean. Bestetik, jaien egitarauaren baitan ere jokatu dute Azterna taldean antolatutako futbol txapelketako finala.

MUSETI
JOSITEGIA

M&S

Bordatuak · Konponketak
Kurtsoak · Opariak

JUSTO AJURIA 1, EZKERREKO LOKALA - SONDIKA
623957729 (Ainara)

IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiolibarrondo@gmail.com

Ford **Goiri'78**
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515
goiritaller@fordgoiri.com

BOSCH
Service

ATEKA
Bosch Car Service

946 740 456
ateka@bosch-bcs.com

Txorierri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D
SONDIKA

EGITARAUA

19, barikua

15:00-17:00 **Puzgarriak** IGeren eskutik

17:00-18:30 **Diskoteka** IGeren eskutik

19:30 **Kuadrillen igoera elektrotxaragagaz** Hasiera Lehendakari Agirre kalean, lurpeko pasabidearen irteerare parean

20:00 **Txupina eta Pregoia** APNABI elkartearen eskutik

20:15 **Kuadrillentzako frogak**

Hanburgesa banaketa (Frogak amaitu eta gero)

23:00 **Kontzertuak: Mirari + Bengo**

20, zapatua

10:00 **Sukalki izen emotea** Hegalariak K.T-ren txosnan

10:30 **Pikeko harresia 4. igoera bizikletaz** Izena ematea C.D. Sondika txosnan 9:30etatik 10:15etara

11:00 **Kalejira** Ipar Elaiak txistu taldearekin

11:00-13:00 **Umeentzako jolasak**

13:00 **Apar-festa**

14:30 **Sukalki txapelketaren aurkezpena**

16:30 **Mus txapelketa** Izen ematea 16:00etan Hegalariak K.T-aren txosnan

17:00 **Gimnasia erritmiko erakustaldia** CD Danak antolatuta

18:00 **Kontzertua LC27** herriko taldearen eskutik

18:00 **Bingo musikatua** jubilatuen etxean Arianna Star-en eskutik

18:30 **Tortilla txapelketaren izen ematea** CD Sondika txosnan

19:00 **Jaurti zure hirukoitza Goron-dabeko kiroldegian** Txorierrri Basket taldeak antolatuta

20:00 **Tortilla txapelketa aurkezpena**

22:30 **Dj Porty + Seittum erromeria + Dj Porty**

21, domeka

10:30 **Herri lasterketa** Goiri plazan. Izen emotea 10:00etan

11:00 **Kalejira** Ipar Elaiak txistu taldearekin

12:00 **Dantza agerraldia** Gorantzailleak dantza taldeak antolatuta

15:00 **Herri bazkari solidarioa** : Janari prestaketa BISUBI sukaldarien fundazioaren eskutik, APNABI elkartearen alde

16:00-18:00 **EINGO** taldea

18:00 **Igel jaurtiketa Solidarioa** Ataxia de Friedrich-en alde Hegalariak K.T-ak antolatuta

19:00 **Karaokea**

23, martitzena

11:00 **Iron Team**

12:00 **Puzgarriak** ikurrina enparantzan

18:00 **Hip Hip Ura** antzerki partehartzailea

19:00-22:00 **Plazaz-plaza** animazioa fanfarriarekin

22:00 **Eskuzuzien banaketa** liburutegian

22:30 Kalejira **Akelarre** antzerki ibiltaria

23:15 **San Juan Sua** Pentagrama soinu taldearekin eta Gorantzailleak dantza taldearekin.

24:00 Kontzertua **Steady Rockets**

24, eguaztena

12:00 **Meza + aureskua**

12:30 **Fanfarrea** herritik

13:30 **Erretiratuen luntxa**

18:00 **Sari banaketa** (Sondika pin-txotan, Balkoi apainketa, Jaietako kuadrilla)

19:30 **Rumbo Tijuana**

Azken traka eta jai amaiera

**ANIMAZIOAREN MUNDU HARRIGARRIAN
AMESTEN DUZUN GUZTIA ESKURA DUZU
IRRIKAZUREKIN!**

APAR-FESTA · PUZGARRIAK · ESKOLAKO JAIK
TAILERRAK · ROBOTIKA · DISKO-FESTA

irrikazu
ANIMAZIOA

irrika@irrikazu.com · 656 786 959 · 688 892 013
www.irrikazu.com

Centro Dental
Txorierrri

Rocio Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7. behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno. 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885
www.cdtxorierrri.es

ORTODONCIA21



AURTEN, APNABI

Sondikako San Joan jaiek gainera asko dute boluntariotik ere. Urtero, herri bazkariko dirua irabazi asmorik gabeko elkarteri bateri ematen diote. Iaz, Naizen elkarteari bideratu zitzaion eta aurten, Apnabiren txanda izango da. Elkarateak Autismoaren Espektroko Nahasteak (AEN) dituzten bizkaitarren familiak biltzen ditu. Gainera, pregoia irakurri eta txupina jaurtitzeko ardura ere izango dute. Diru bilketari dagokionez, antolaztaileek helburu dute iazko 4.390 euroak berdintzea edota gainditzea. Horrez gain, Apnabiri beste keinu bat egin nahi izan diote eta egitarauan zaratarik gehien egongo diren ekintzak zehaztuko dituzte, hauek bereiziki zaugarriak direlako horrelakoetan. “Elkaratea herrikoa izan ez arren, badauka erlazioa Sondikarekin gure herritarren bat edo beste bertan

“Oso pozik gaude kuadrillen erantzunarekin, kolore berezia ematen diete jaiari”

dagoelako ordezkari edo parte hartzaile moduan, hor dago harremana”, azaldu du zinegotziak.

Hain zuzen ere, Sarria zinegotziak San Joan jaiek duten “elkarlana” nabarmendu nahi izan du. “Jai oso parte hartzaileak dira eta herriko hainbat elkartek beraien ekarpena egiten dute modu bate-ra edo bestera urtean zehar egiten duten

lan guztiaren erakusleihu bikaina izanik. Oso garrantzitsuak dira guretzat eta beraien parte hartzea ezinbestekoa da”.

Adibidez, iaz harrera oso ona izan zuen ekainaren 23ko San Joan Txiki Egunak eta aurten errepikatu nahi izan dute. “Sondikako herrigune nagusitik apur bat aldentuta dago jai ingurunea eta kale nagusietara hurbiltzeko modu ona iruditzen zaigu”, dio kultura arduradunak. Horregatik, ekainaren 23ko ekintzak herrigunean oinarrituko dira gauean kalejira egin eta San Joan suaren inguruan sondikohtar guztiak elkartu arte.

Horrez gain, Sarriak gogoratu nahi izan du, azken urteetan bezala, etxera gauez itzultzeko laguntza zerbitzua egongo dela: bariku eta zapatu gauean, 01:30ean, 02:30ean eta 03:30ean. Eraso matxisten kontrako protokoloa ere izango da. ●

ALZORA
Sondikako euskara elkartea
BANDO PASA JAIETAN!

Sondigarbi GARBITEGIA
ITURRIGANE, 2
635584941
EGUNERO
8:00-22:00

PEÑA ATHLETIC BETI HARROBIA
Txorierrri Et., 30
48150 SONDIKA
94 453 35 05
667 78 63 31

yedra floristas
Mikel Zarate, 2 · 48150 Sondika · Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 · yedrainterflora@hotmail.com

ZOKKETAK


Aikorren komunitatearen parte izateak saria du. Hilero hainbat sarrera eta opari zozkatuko ditugu gure irakurleen artean. Argibide gehiago: aikor.eus/zozketak



Hontza Museorako sarrerak

Hilero Hontza Museorako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **Ekainak 14**



JumpYarderako sarrerak

Hilero hilero JumpYarderako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **Ekainak 14**



Kalak belarritako para

Derioko Kalak artisauaren eskutik. [@kalakbitxiak](https://www.instagram.com/kalakbitxiak)

Zozketan izena emateko azken eguna: **Ekainak 14**



Eguneko menua bi pertsonarentzat BASERRI ANTZOKIAN

Hilero bi lagunentzako menua zozkatuko dugu zuzenean gure aikorlagunen artean. Ez da beharrezkoa izena ematea.



Enda Lur eta Arbasoen ituna

Toti Martinez de Lezearen eleberriak

Zozketan izena emateko azken eguna: **Ekainak 14**

AURREKO HILABETEKO IRABAZLEAK:

Eguneko menua Baserri Antzokian:
Ion Llona Aiarza

JumpYarderako sarrerak:
Lander Llona Furundarena

Hontza museorako sarrerak:
Katalin Zarate Arrieta

Bitxikool belarritako para:
Gorka Zarate

Tabakoa eta bapeagailuak Txorierriko ikastetxeetan: prebentzioa atsedendian



Txorierriko Mankomunitateak, Osakidetza ESI Uriberekin elkarlanean, tabakoaren eta bapeagailuen kontsumoaren prebentziora bideratutako jarduerak egin ditu Politeknika Txorierrin, Nekazaritza Eskolan eta Derioko Institutuan. Eki-
menak ikastetxeetan dagoeneko egiten diren prebentzio-lanak osatu ditu, eta gazteen artean gero eta zabalduago dauden kontsumo-ohituren inguruko informazioa eta hausnarketa sustatzea izan du helburu.

Jardueren bidez, ikasleei gaur egun tabakoak hartzen dituen forma ezberdinak

ezagutarazi zaizkie, baita kontsumoak epe labur eta luzera dituen arriskuak ere. Era berean, tabakoaren eta bapeagailuen inguruan zabaldua dauden mito batzuk zalantzan jarri dira, eta erretze-ari uzteak dakartzan onurak azaldu dira. Parte-hartzaileek, gainera, laguntza eta orientaziorako baliabideen inguruko informazioa jaso dute.

Politeknika Txorierriren kasuan, ikasleen presentzia txikia aurreikusten zenez, astebetetz mahai informatibo bat jarri zen, kontsultarako materialarekin eta etxera eramateko baliabideekin. Derioko Institutuan eta Nekazaritza Eskolan, be-

rriz, jarduerak atsedendietan egin ziren, maiatzaren 4an eta 5ean, Tabakorik Gabeko Mundu Egunaren harira antolatutako ekimenen barruan.

Atsedendietan, ikasleek modu irekian hitz egin ahal izan zuten beren kontsumoaz, joerez eta kezkez. Elkarrizketa horiei esker, agerian geratu da gazteen artean bapeagailuen kontsumo goiztiarra mantentzen dela oraindik ere, eta askotan horrek tabako tradizionalerako bidea errazten duela. Askok kalterik eragiten ez duen produktu gisa ikusten duten arren, bapeagailuak nikotina-kontsumoa gazteengana hurbiltzeko estrategia argi baten parte dira.

Bestalde, jarrera kritikoa duten gazteak ere badaudela ikusi da. Hala ere, askotan ez zaie erraza egiten ingurukoiei deseroso sentitzen direla adieraztea edo haien aurrean ez bapeatzeko eskatzea. Horregatik, informazioa emateaz gain, auto-babeserako eta adierazpenerako gaitasunak ere landu dira prebentzioaren parte diren aldetik.

Azken batean, esperientziak erakutsi du prebentzio eraginkorrak gazteengana hurbiltzea, entzutea, informatzea eta laguntzea eskatzen duela. Horretan jarraituko dute lanean Txorierriko Mankomunitateko esku-hartze komunitarioko teknikariak, kale-hezitzaileak eta Osakidetza ESI Uribeko erizain komunitarioak.

Ahotsak batuz, komunitatea indartuz

Badira hitzak isilean geratzen direnak, egunerokoaren zaratan galdu ohi direnak. Baina badira, era berean, elkartzen direnean indar bihurtzen diren ahotsak. Horixe da Emakumeon Ahotsen Sarea: Txorierriko emakumeon artean loturak sendotzeko, ideiak partekatzeko eta komunitatea ehuntzeko sortutako gunea.

Sare horrek ez du soilik komunikazioa erraztu nahi; haratago doa. Elkarren berri izatea, elkarri entzutea eta proposamenak elkarrekin lantzea du helburu. Espazio ireki eta parte-hartzailea da, non emakume bakoitzaren ekarpenak balioa duen, eta non hitzak ekintza bihurtzeko bidea aurkitzen duen.

Egitasmoak bi ardatz nagusi ditu. Bate-tik, hedapen-kanala, informazioa zabalteko tresna gisa: tailerrak, jarduerak eta herriko ekimenak bertatik ezagutaraziko dira. Bestetik, eztabaida-taldea, ideiak trukatzeko, iritziak partekatzeko eta proposamen berriak sortzeko gunea.

Baina sare hau ez da informazioa soilik zabaltzeko tresna bat. Sare bat da, bere esanahirik sakonenean: elkarri eusteko, babesa eskaintzeko eta komunitate sendoago bat elkarrekin eraikitzeko espazioa. Emakumeen arteko konfiantza, elkartasunean eta gertutasunean sustatzen den egitura bizia da.

Agian horixe da ekimen honen indarrik handiena: ahots bakoitzak bere lekua

duela gogoraraztea, eta elkarrekin, urrugo eta ozenago heldu gaitzkeela.

EMAN IZENA





Zalantzetatik elkarrizketara: familiar sexualitatea lantzen



Sexualitateari buruz hitz egitea ez da beti erraza, ez gazteentzat ezta familientzat ere. Askotan, "birjinitatea" bezalako kontzeptuek zalantzak, presioak eta uste okerrak sortzen dituzte. Gaur egun badakigu birjinitatea ez dela errealitate biologiko bat, baizik eta gizarteak eraikitako ideia bat, eta horrek gazteen bizipenetan eragin handia izan dezake.

Sexualitatea, ordea, askoz ere zabalagoa da: ez da momentu jakin batera

mugatzen, ezta praktika bakar batera ere. Pertsona bakoitzak bere erritmoan, bere nahien arabera eta segurtasunez bizitzeko eskubidea du. Horregatik, garrantzitsua da gai hauei buruz modu irekian eta errespetuz hitz egitea, inor epaitu gabe.

Eta hemen dator gako nagusietako bat: inor ez da dena jakinda jaiotzen. Sexualitateari eta harremani buruz ikastea prozesu bat da, eta familia barruan ere elkarrekin egin daiteke bide hori. Kontua ez da perfektua izatea, baizik eta zintzoa eta hurbila, eta entzuteko prest egotea.

Elkarrekin ikasteko eta zubiak eraitzeko espazio bat: ARGISEX!

16 eta 29 urte bitarteko seme-alabak badituzu, ARGISEX! zerbitzua lagungarri izan daiteke bai familientzat bai gazteentzat. Batzuetan, etxean zaila izaten da gai batzuk nola planteatu jakitea edo nondik hasi asmatzea; beste batzuetan, gazteek eurek ere ez dakite nola hitz egin helduekin kezkatzen dituzten kontuei buruz.

Zerbitzu honek bien arteko zubi lana egin dezake: familiei segurtasuna eman ez eta gazteei ere espazio bat eskainiz, gai afektibo-sexualak modu lasaigoan eta argiangoan lantzeko. Helburua ez

da erantzun guztiak ematea, baizik eta elkarrekin ikastea, ulertzea eta komunikazioa erraztea.

Profesional espezializatu batek orientazioa eta babeska eskainiko dizu honako gaietan:

- Zelan hitz egin seme-alabekin harremani buruz?
- Bikote-gatazkak, mugak edo kontrol egoerak.
- Ongizate emozionalarekin lotutako kezak.
- Etxean lantzea zaila egiten den edo nola hasi ez dakizuen gaiak.

Jarri harremanetan

ARGISEX! zerbitzuarekin:

Ordutegia: 16:30 – 18:30

Hileko lehen eta hirugarren asteartean

Emaila: argisex@txorierri.eus

Telefonoa - WhatsApp: **688 815 071**

Kontsultak edozein unetan bidali ditzakezu; erantzunak zerbitzuaren ordutegian emango dira.

TXORIERRIKO BERBAK

Okelea eta odolostea

Barazkijaleak alde batera itxi ezke-ro, talde bi egoten dira mahaiaren bueltan: arrainzaleak eta okelea gurago dabenak.

Arraina eskuratu eta gure eskualdean saltzen ibiltzen ziranez arraindunak edo arrain-saltzaileak esaten jaken. Okelearen salmenta, barriz, gaur be harakinen beharra izaten da.

Okelea berbea erabilten dogu mendebaldean jatekoa izentetako. *Haragia* be tarteka entzun geinke, baina ez da ohikoa. Okela guztiak haragia dira, baina haragi guztiak ez dira okelea. Beste era batera esanda: jaten ez danari ezin geinkio esan *okelea*, hori haragia da.

Txixi berbea be badarabilgu, baina ume

berbetan baino ez dogu entzungo. Ipar Euskal Herriko toki batzuetan (Nafarroa Beherean batez be) umeakaz ezeze, helduakaz be erabiten da berba hori.

Okelea, kasurik onenean, samurra edo biguna izan leiteke; baina halan ez dagoanean gogor edo *zal* (*zail*, euskera batuan) dagoala esango dogu. Erraza berbaren antonimoa zaila da euskara batuan, guk gehienetan gaitza edo *gatxa* darabilgun arren, baina euskalki guztietan erabiltzen dan beste "zail" horrek ('correoso') adiera ezbardina dauka. Honela definitzen dau Euskaltzaindiak: "Zail: Haragiaz, larruaz eta kidekoiez mintzatuz, samurra ez dena".

Okelea edo ogia lizundu ezker ezin da

jan. Txorierri berba eder bi erabilten dira hori adierazoteko: *lumindu* (Lezaman eta Larrabetzun) eta *amiotu* (Loiun).

Urdaiazpikoari *pernila* esaten jako gure inguruan, eta odolkiari *odolostea*. Dana dala, odolostea mota bat baino gehiago dago. Meheena *odolostea*, apur bat lodiagoa *buzkantza* edo *mortzila*, eta lodiena *aita santua*, *aita eternoa* edo *lopea*.

"Txarribodea Zamudion" izeneko liburuxkak dakarrenez *mortzilea* esaten jakon heste lodiagaz egiten zanari; heste meheagaz egindakoari, barriz, *odolostea*. Lehenengo agosi egiten zan, eta odolostea prijidu. Azkenik, hestearen azkenengo aldean dagoan heste lodi handiari *aita santua* edo *lopea* esaten jakon.



T MIKEL REINA BARROS ANER MENTXAKA ALVAREZ

TXORIERRIKO MUSIKARIAK

Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko

Musika eszena eta bere tokiak aztertu dituzte Uxue Garcia Califano biolin-jotzaileak, Joseba Ortuzar Serrano Garratza Booking-eko kideak eta soinu teknikariak eta Taberna Ibiltaria taldeko Lander Bilbao Gorostidik, Asier Oruetxebarria Fernandez de la Peñak eta Josu Aretxabaleta Orbek.

Negu Gorriak taldeak Jon Maiak idatzitako hitzekin sortutako *Gora Herria* abestian txertatu zuen esaldia: Kantatzen duen herria ez inoiz hilko. Gaur egun, gainera, gero eta gehiago abesten da. Horretarako, gero eta erreminta gehiago daude. “Ordengailu batekin orkestra sinfoniko bat eta guzti osatu dezakezu”. Hortik hasi da eztabaida mahaiaren inguruan. “Musika demokratizatu egin da, gaur egun edozeinek sortu dezake”.

“Tristeza bezain egia eta erreala”, esan du batek. Ortuzarrek uste du “momentu apurtzaile” baten dagoela euskal musika. Ondo baino hobeto kontrolatzen du eszena, Garratza Booking elkartearen

“Arraroa da herrietako jaietako gaueko eskaintzan azkena DJ bat ez izatea”

bidez kontzertuak antolatzen ditu Larrabetzuko Hori Bai Gaztetxean. “Gaur egun sintetizadoreak edota autotuneak ikaragarri indarra hartu du, bestelako musika bat egiten ari da, lehengo abestiak bertsionatzen dira eta guzti”. *Revival* kontzeptua ekarri du gogora

Oruetxebarriak, Pantxoak eta Peioren itzulera gogora ekarri.

Garciak ere uste du tekno musikak, adibidez, indarra hartzen ari dela, baina, hala ere, “beti lehen ilaran” dauden taldeek hartzen dutela eszena. Segurtasuna. Bilbaok mahai gainean jarri duen beste aldagaia. “Gaur egun gutxiago arriskatzen da taldeekin, berdin dio tokiak, areto handiak edo txikiak, ez dago talde hasiberrirentzako edo bestelakoentzako tokirik. Azkenean errentagarritasuna bilatzen da, eta horrela zaila da euskal eszenaren irudikapen oso bat egitea”. Ortuzar zuzenean sentitu da erantzule: “Horrela da, Hori Bain jotzeko eskari handia daukagu, baina oihartzuna duten taldeak ekartzen



ditugu kontuak aurrera atera ahal izateko. Jendea erakartzera goaz gehiago, eszena aberastera baino”. Kuriostate falta aipatu du Oruetxebarriak, “ez daukagu gauza berriak ezagutzeko jakinmin edo nahi hori, gauza seguruetara jotzen dugu, bestelako alternatiba berriak ukatuz”.

Gazteak. Horiek dira Aretxabaletarrentzat gakoa. “Bai uste dut gazte mugimendua egon badagoela, Larrabetzun eta Zamudion batez ere, ez bakarrik taldeak sortu nahia, euskal kultura eta ondarea mantentzeko desira”. Horretarako, ordea, instituzio publikoen laguntza behar dela nabarmendu dute denek ala denek. “Bestela ezinezkoa da”.

Orduan zabaldu da gai potolonoetako bat: zuzenekoak. Bilbaok hasierarekin lotu nahi izan du: “Adibidez, Gazte Eguna bezalakoetan, lehen, bazkal aurretik edo ostean beti egoten zen trikipotea edo horrelakoak, zuzeneko musikarekin. Gaur egun, aldiz, karropoteo gehiago daude, non bafle bat jartzen den eta bertatik musika ipini”. Herriko jaietan ere antzeko zerbait gertatzen dela nabarmendu dute. Orain dela ez asko, kontzertuen egitarauko lehen edo azken taldea herrikoa edo ingurukoa zen. Hau da, aukera ematen zitzaizkien gazteenei

oholtzara igo ahal izateko, inguru ezagun baten jotzeak ematen dizun konfiantzarekin. Hori ere gero eta gutxiago ikusten da. “Arraroa da herrietako jaietako gaueko eskaintzan, azkena DJ bat ez izatea”. Ados daude guztiak. “Ez da txarto egotea edo ez, baina buelta bat eman beharko zitzaien”.

“Bruce Springsteenekin bakarrik ez, euskal musikariekin ere San Mames bete daiteke”

ERREFERENTEAK

Azkenean, entzulegoari heltzeko modurik onena zuzenekoak dira. Harreman zuzenena. “Oihartzuna duten taldeak ekarri behar dira arrakasta izan ahal izateko”. Badira kontzertuetako izenak begiratzen dituztenak jai batzuetara edo bestera joateko aukeratzen denean. Hori beti pasa dela uste dute beteranoenek.

Lehen Akelarre eta Hegan ziren, orain ETS eta Bulego.

Garciak bestelako eszenatokiak botatzen ditu faltan zuzenekoak eman ahal izateko. Biolin-jotzaile batek dio, eta hori Galbahe taldearen bidez biolina ere demokratizatzen eta bestelako oholtzak hartzen ari dela azkenaldian. Hurbileko kasu batetik jola, Loiuako asteburu kulturakal ekarri ditu gogora. Bertan, loiuztarrek edozein motatako sorkuntza egiten dutena beraien lana ikustarazteko aukera ematen du Loiuako Bakarrak gazte taldeak. “Egun eta data zehatz batzuetara mugatzen dugu eskaintza, jaietara batez ere. Baina gero ez dago urte osoan zehar musika edo kultura plazaratu ahal izateko eskaintza bat”.

Bat etorri dira guztiak esaterakoan Larrabetzuko Hori Bai Gaztetxea dela Txorierriko tokirik aproposena eta bakarrenetarikoa horrelakoak eskaini ahal izateko. “Zamudion ez dakit zenbat denbora daramagun horrelako espazio bat eskatzen eta aldarrikatzen. Bertokok, esate baterako, ez dauka emanaldi on bat eskaintzeko espaziorik, entseguak egiteko lokaletara mugatzen da askotan udalen eskaintza”, dio Aretxabaletak. Horrelako plazak botatzen ditu faltan urteko

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Klimasajoa

clinica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txanemendi sotoidea, 9 - Lorja | Antzaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urte 7, behean
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate gurtiak zintzo bakar behera
—Aurkuntza doan
—Especialitatea: umeak

OK
OAKLAND
ENGLISH

L. LEIZAOLA PLAZA, 2 · ZAMUDIO
946 522 857



programazioa osatu ahal izateko.

Irlanda edota Eskoziako tabernetako kontzertuak ekarri dituzte gogora ostera ere beteranoek. “Horrelakoetan ez da behar ez mikrofono, ez teknikari, ez argirik, espazio hutsarekin nahikoa da”. Ortuzarren soinu teknikari arloa atera da oraingoan: “Entzumen minimo bat behar da, ez du edozein espaziok balio. Ez da zertan espazio handirik behar”.

“Galdu egin da gitarra bat atera edo kantuan hastea taberna baten”. “Zarata bezala hartzen dute batzuek trago bat hartzen duten bitartean, ez dute zuzeneko musika hori baloratzen”. “Alde egiten dute eta guzti batzuek”.

Aretxabaletak Bilboko Udalak kaleko artistei jarritako mugak gogoratu ditu. “Txarrena balira bezala irudikatu nahi izan dituzte”. Artista asko eta asko kalean jotzen hasi direnean. “Kalean jotzeak ematen dizun naturaltasun eta zuzeneko harreman hori galtzen ari da horrelako jokabideekin”. Hemen ere demokratizazioa ematen ari da: dena antolatuta egon behar da, baimenak eskatuta udaletxean. “Bilbon duela urte batzuk, Taberna Ibiltariaren emanaldi baten udaltzaingoak etorri ziren baimenak eskatzen”.

TXIKITASUNETIK HANDITASUNERA

Hain zuzen ere, gaur egun gero eta gehiago joaten da makro emanaldietara. San Mames, Bilbo Arena edo BEC betetzera. Aldebikotasuna gailentzen da kasu honetan. “Ondo ikusten dut. Horrela erakutsi dezakegu Bruce Springsteenekin bakarrik ez, euskal musikariek ere horrelako eszenatoki erraldoiak bete daitezkeela”, dio batek. “Gainera,

“Musika enpresetatik atera beharra dago, dirua bakarrik nahi dutenak daude, eta autogestioarekin aurre egin”

horrela euskarara eta euskal kulturara bestelako herritarrek erakarri daitezke, erdarazko esparruan gehiago bizi direnak”, aipatu du besteak. “Baina gero Bartzelonara edo Madrilera doaz kontzertu berdinak ematera, eta hemengo jende gehiago doa bertakoa baino”, diote kontrako argudioarekin. “Gainera, orain diru publikoa sartu dute eta guzti eman-kizunetan, hausnarketa egin beharra dago. Diru laguntzak beharizan erreala duten taldeetara bideratu beharko ziren, euskara sustatzeko bestelako metodoak daude, dena otzara bakarrean sartu barik”. planteatu du besteak. “Gauza batek ez du bestea kentzen. Baina ezin daiteke bakarrik handitasun eredu hori indartu, txikitetasunetik hasitakoak ere zaindu behar dira, haiek dira katea ekimen handiagoak antolatu ahal izateko”.

Sarrerren kudeaketak ere zeresana eman du. FOMO (*fear of missing out*) sindromea nagusitzen ari da, hau da, zerbait galtzeko beldurra. Horrela agortzen dira minutu gutxitan bi urte barrurako kontzertu baterako sarrerak. “Covid pandemiak eragina izan duela esango nuke, orduetik eromen hutsa da. Batek daki bi urte barru non eta nola

egongo naizen”, dio Ortuzarrek. Garcia are eta urrunago joan da: kontzertuak plan baten bilakatu dira. “Modan dago kontzertuetara joatea, eta zelan ez zara joango mundu guztia badoan. Sustatzen da gehiago musika produktua kontsumismoa, talde berriak ezagutzeko edota gozatzeko modu bat baino”. Postureoa dela dio Oruetxebarriak. Argazkiak eta bideoak atera eta sare sozialetara igotzea bertan egon zarela erakutsi ahal izateko.

Eta noski sarrera guztiak agortu beharra dago, bestela ez dago arrakastarik. *Sold out* fenomeno da nagusi. “Negozio hutsa” dela uste du Aretxabaletak, ez musika. “Aurreikusitako epeak errespetatzen dira beti, ez dago inprobisaziorako tarterik”. Taberna Ibiltariko kideek, adibidez, ez dute arazo hori kalean eta tabernetan aritzerakoan. “Batzuetan hobe da jende gutxiago egotea eta guzti, parte hartzen badaude batez ere”. “Geuk ondo pasatzerakoan, ondo pasatzen dute entzuleek, eta horretarako, inguru egokia behar da”. “Ondo pasatzeko jotzen dugu, eta besteek ondo pasarazteko, gutxienez ahalegina eta gure onena ematea zor diegu”. Garcia ren kasua bestelakoa da, ordea. Zuzenean erantzun hori jasotzea zailagoa da berarentzat normalean jotzen duen musika motagatik. “Nik gehiago jasotzen dut kontzertu baten ostean uenean bertan baino, denborarekin apreziatzen da gehiago biolina. Musika klasikotik atera eta bestelako doinueta erabiltzea baloratzen du jendeak”.

Eta norantza doa euskal musika etorkizuneari. Galdera ona. “Egon egongo da, zelangoa ez dakit”. Taberna Ibiltaria bezalako taldeak, sentsazioa kontrako



ematen baduen ere, goranzkoan daude-la uste dute. Herri askotan daude horrelakoak. “Gure arrakasta da jende gaztea eta ez gain gaztea erakutzen dugula”. “Horrelako taldeak oso beharrezkoak dira, eta pertsonalki, talderik onenak dira, betiko abestiak kantatzen dituzte, badakizkizunak, eta giro bikaina sortzen dute”, aitortu du Ortuzarrek. “Oraindik badago jende eta giro bat hori ba-

besten, eskertzen eta miresten duena”. “Zureago sentitzen duzu musika hori, musikatik beratik baino girotik izan dezake gehiago”.

Txikitasunera gehiago begiratu beharra dagoela uste dute. Bat datoz esaterakoan bailaran Larrabetzuko Hori Bai bezalako espazioak izatea “zorte ikaragarria” dela. Oro har, Gaztetxeek musika eta kultur eszenari ematen dion aukera

nabarmendu dute. “Musika enpresetatik atera beharra dago, dirua bakarrik nahi dutenak daude, eta autogestioa horri aurre egiteko modu ezinhobea da”. Instituzioetatik horren aldeko apustua egin beharra dago: “Musika eta kultura mota ezberdin askotako jendea elkartzen du, oso beharrezkoa da gurean”. Hain zuzen ere, kantatzen duen herria ez delako inoiz hilko. ●

Ekin eta ekin 38 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



TXORIERRIKO UDAL EVSKALTEGIA



UDAKO IKASTAROAK (UZTAILEAN ETA IRAILEAN)

NOIZ	HELBURUA	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA	IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA	MATRIKULA-PREZIOA
Uztailaren 1etik 24ra	Maila guztiak	9:00-14:30	90 ordu	Ekainaren 24a	111,6 €
Irailaren 9tik 29ra	Maila guztiak	Egunean 5 ordu	90 ordu	Uztailaren 13a	111,6 €
Irailaren 9tik 29ra	Mintzamena B1-B2-C1	Egunean 3 ordu	45 ordu	Uztailaren 22a	55,8 €
Irailaren 9tik 29ra*	B1-B2-C1	9:00-12:00 edo 16:00-19:00	45 ordu	Uztailaren 22a	55,8€

*HABEren delaldi itxira joan diren ikasleentzat baino ez. Lehen delaldira aurkeztu diren ikasleak izan behar dira, idatzian edo ahozkoan gainditu ez dutenak; balta lehen delaldira joan ezin izan direnak ere, ekainean maila lortu dutelako.

MATRIKULA ZABALIK, INFORMA ZAITEZ!

Txorierri etorbidea 9, 1. lokala-erdisotoa - DERIO

944 540 062

euskaltegia@txorierri.eus

TXORIERRIKO MUSIKA GIDA

Gaur egungo musika askotarikoa bezain anitza da, horren eredu da Txorierriko Musika Gida. Uda ate joka daukagula, eta horrekin batera herriko jaiak eta kontzertuak, Aikorrek bailarako musika eszena aztertu nahi izan du, 28 taldeko zerrenda osatuz. Azken aste luzeetako lana da, gure ingurukoen berri gehiago eta hobeto jaso ahal izateko gida da. Irizpidea bakarra izan da: kideetako bat behintzat bailarakoa izatea. Zure berri izan ez badugu, jarri gurekin harremanetan. Hain zuzen ere, papereko edizioan bakarrik ez, webgunean ere jarri dugu Musika Gida, eta ez hori bakarrik, eguneratzen joango gara. Gainera, talde bakoitzeko esteka daude, beraien musika entzun eta sare sozialetan jarraitu ahal izateko.

Jarraitu Txorierriko musikaz gozaten: www.aikor.eus/musikagida

ARAMU

POP-ROCK, POST-PUNK



Berart Gartzia (Zamudio), Ager Garai (Maruri), Gorka Argaluz (Laukiz), Isemene Pellejero (Mungia), Mikel Muruaga (Laukiz)

Aramu taldea 2023an sortu zen Marurin. Bertako baxu-jotzailea eta ahotsa da Berart Gartzia zamudioztarra. *Ostabe zu* izeneko diskoaren sorkuntza prozesua amaitu ondoren, 2024ko Gaztea Iratiko Maketa Lehiaketan eman zuten izena. Entzule Saria lortu zuten eta guzti. Sorkuntza prozesuari eskaintzen diote tarterik handiena. Pop-rock eta post-punk estiloen arteko doinuak nahasten dituzte beraien musikan. Hala ere, kontzertuak ematea gustuko dute eta orain arteko bidea jarraitu nahi dute.




BERAKATZ

HERRIKOIA



Eñaut Madariaga (Zamudio), Koldo Álvarez (Lezama) eta Mugialdeko Jon Agirre, Gorka Argaluz, Julen Gorordo, Ager Garay, Iker Larrauri, Aitor Arbulu, Oier Arrien, Bittor Muniozgueren, Enaitz Elorduy, Antton Garai, Ian Olazar

Beste ideia bikain asko bezala, 2023an kuadrillako bazkari batetik ateratarako taldea da Berakatz. Gitarra batekin eta zazpi ahotsekin hasi ziren, eta gaur egun bi gitarrek, akordeoi batek, kajoi batek eta biolin batek osatzen dute taldea, abeslariekin batera. Taldearen helburua euskal kultura kantuz bizirik iraunaraztea da, eta horretarako, euskal kantak herriz herri abesten dituzte. Taldeak abesti propiorik ez duen arren, abesti batzuei beraien ukitua ematen diete.



BERART GARTZIA GEZURAGA PIANOA



Berart Gartzia Gezuraga piano-jotzailea da, lau urterekin hasi zen pianoa jotzen. Nahiz eta musika klasikoko ikasketa egin dituen, musika modernoan eta jazzean oinarri duten horietan ere formatu da. Taldetxoentzat, koruentzat edota bestelako ekitaldietan eskaintzen ditu kontzertuak, aurretiaz prestatzen ditu partiturak etxean. Adibidez, 2021ean, Zamudioko Kamara Koralarantz armonizatutako *Gabonak Kantari* diskoan parte hartu zuen. Bestelako doinuak frogatzeko prest dago.



BERTOKO SOINU-TRESNEN ELKARTEA EUSKAL MUSIKA HERRIKOIA



1996an, Zamudioko Guraso Elkarteko kide batzuen ekimenez, *Bertoko musika tresnen elkarte*a izenarekin sortu zen gaur *Bertoko* bezala ezagutzen dugun taldea. Euskal musika tresnak eta kantak bertan irakasteaz gain, hasiera-hasieratik musika kalera ateratzea izan dute helburu. 1997ko Pazko jaietan egin zuten jendaurreko lehen emanaldia, Zamudioko plazan, eta ordutik geratu barik dabilzate herriko jai eta ospakizunetan. Egun, 5 urtetatik hasi eta 75etik gorako taldekideak dituzte.



BROKEN IZOTZ

POP-ROCK



Aitor Zarate (Zamudio), Jaime Gardoqui (Zamudio), Jose Ignacio Hidalgo (Zamudio) eta Juan Isidro Idalgo (Zamudio)

Broken Izotz rock taldea 2016an sortu zen. Batzuetan gertatzen den bezala, taldeko hiru kide 2011n sortutako Ke4 taldetik etorri ziren. 2023. urtean *Kantatzen* izeneko diskoa argitaratu zuten, euskarazko bederatzi kantu propioekin. Kontzertuetan, kantu propioez gain, 80ko eta 90eko hamarkadetako pop-rock bertsioak eta berriagoak jotzen dituzte: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Gaur egun, batez ere Bizkaian eskaintzen dituzte kontzertuak, jaietan zein tabernetan.



CRUCE DE MIRADAS

POP-ROCK



Alain Beaskoetxea (Derio) Alain Martin Txopis (Bilbao), Eder Olivencia (Bilbao), Eneko Zabala (Leioa) eta Nekane Crespo (Bilbao)

Cruce De Miradas taldea 2019an sortu zen, Txopisek hainbat abesti zituen sortuta eta horiek jotzeko musikarien bila hasi zenean. Elkar ezagutzeko eta taldeari forma emateko hilabete batzuen ostean, urte bereko Derioko jaietan igo ziren oholtzara lehen aldiz. Laster kaleratu zuten beraien lehen diskoa, *Sueños locos* izenekoa. Gero, 2023an, bost abestiz osatutako *Deseos* diskoa argitaratu zuten. Hain zuzen, gaur egun, beste lan baterako abestiak sortzen dabilta.




DANEL ARTEAGA

POP



Danel Arteaga gaur egungo musika industrian bere lekua aurkitzen ari den artista da, “sinpletasunaren eta zintzotasunaren aldeko apustua egiten duena, bere soinua oinarri gisa izanez”. Bere musika esperientzia pertsonaletik sortzen du, benetako emozioak transmititzeko eta entzuten duenarekin zuzenean konektatzeko asmo argiarekin. Estilo zintzo eta hurbilaz, bere bide artistikoki hasiera eman dio, egungo eszenaren barruan benetako proposamenekin lekua eginez.



EGUEN BAKOITIAK

POP-ROCK



Aritz Albaizar (Larrabetzu), David Carmona (Larrabetzu), Iban Oleagoitia (Larrabetzu), Mikel Ors (Lezama), Xabi Oleagoitia (Larrabetzu), Eli Gerediaga (Gernika) eta Esti Blanca (Algorta)

2021ean sortutako taldea da Eguen Bakoiak. Hala ere, ez zen 2025era arte izan jende aurrean lehen emanaldiak ematen hasi zirenean. Larrabetzuko eta Lezamako partaideak dira nagusi, eta inguruko herrietakoek ere parte hartzen dute. Denek ezagutzen dituzten abesti klasikoak jotzen dituzte kontzertuetan, rock eta beste estilo batzuetako abestien bertsioak egiten dituzte, momentuz behintzat, euskaraz zein erdaraz.



EKIDAZU

ABESBATZA



Lezamako Alberto Olabarrieta, Ana Pascual, Antxiñe Gorbea, Bea Petralanda, Benito Gorbea, Felix Lopez, Fernando Olabarrieta, Ines Pico, Iñaki Arretxabaleta, Jabi Ureta, Joni Erkiaga, Karmele Buldiain, Kepa Hernandez, Loli Portillo, Maite Etxebarria, Marta Izquierdo, Mertxe Petralanda, Patri Serrano, Pedro M^a Aburto, Pili Gorbea, Pili Larraskitu eta Txema Pico, Enkarni Barranco (Larrabetzu) eta inguruko herrietako beste hainbat lagun

Lezamako Ekidazu Abesbatza 2001eko udaberrian sortu zen, Zorritzetan Euskara Elkarteko kide batzuen ekimenez. Beraz, 25 urte betetzen ditu aurten. Bidean hamaika emanaldi eskaini dituzte Bizkaiko zein Euskal Herriko herrietan, zerrenda amaigabea dute. Hala ere, ibilbide luze eta oparoan duten arren, ez dute inoiz diskorik kaleratu, baina oso aktibo jarraitzen dute, herriko hainbat ekitalditan parte hartzen dute. Horrez gain, esperientzia aberasgarriak izan dituzte, tartean nazioartekoak ere.

www

GAIZKA PEÑAFIEL

TRIKI-FOLK-POP



Musikarekin lotutako edozertan aritu da Gaizka Peñafiel: irakaskuntza, argazkilaritza... Musikagintzari dagokionez, lehen aukera 2002an heldu zitzaion, herriko jaietako kanta plazaratu zuen, *Lezamako Andra Mariak*. Gero, Mikel Zarateri egindako omenaldia zela eta, *Ekidazu* diskoa kaleratu zuen propio sortutako bi kantekin. Erronkarik handiena 2011n heldu zitzaion, lehen bakarkako disko luzearekin: hamar abestiz osatutako *Lagunartean*. Horrez gain, hainbat kolaborazio egin ditu, azkena *Goazen* telesailarekin.

www

GALBAHE

HERRI MUSIKA



Lander Bilbao (Larrabetzu), Gotzon Barandiaran (Larrabetzu), Urdin Baraiazarra (Larrabetzu), Uxue Garcia (Loiu), Mariana Blanco (Bilbo) eta Rafa Rueda (Mungia)

2024ko maiatzaren 3an argitaratu zuen Gotzon Barandiaranek *Galbahea* poema liburua. Hari horretatik tiraka, poemak abesti bihurtu zituzten Larrabetzun, eta gerora, Galbahe talde bilakatu Uxue Garcia eta Mariana Blanco musikariek eta Rafa Rueda bezalako kantugileekin. Kantuek ikusentzuleengandik jaso zuten erantzunak hauspoturik, grabatzea erabaki zuten. Hamaika abestiz osatutako *Ez gara dena ahazteko nahikoa biziko* diskoa kaleratu zuten 2025ean, eta zuzenekoak eman dituzte ordutik.

www

IZAR ARGIA

ABESBATZA



Derioko Elaia Garitagoitia, Izar Garitagoitia eta Mainer Fernández. Larrabetzuko Amaïur Imaz, Ixone Itziar, Lide Isasi, Maialen Azkueta, Paul Burgos eta Siena Mosquera. Lezamako Aisha Castillo, Aiara Etxarri, Aratz Hormaetxe, Ariane Fernández, Enaitz Alonso, Garazi Hormaetxe, Irati Baña, Izaro Alonso, June Cruz, June Zabala, Katixa Lasa, Larraitz Sagastigordia, Maddi Zabala, Matxalen Lekerika, Nahia Oleagordia, Nerea Abia, Oinatz Sagastigordia, Urki Lasa eta Zamudioko Izaro Arteaga

Larrabetzuko *Izar Argia* abesbatza gazteen abesbatza da, herriko musika eskolatik abiatutakoa duela 30 urte baino gehiagotik. Abesbatza 11 eta 20 urte bitarteko gazte koralistek osatzen dute. Ez bakarrik larrabetzukoek, baita inguruko herrietako gazteek ere, bailarako ordezkari za zabala daukate. Abesbatzen musika koral klasikoaz gain, bestelako hainbat estilo ere jorratzen dituzte beraien emanaldietan, esate baterako, pop, rock eta folk abestiak ere lantzen dituzte.



LAGUNA CRUSH ROCK ALTERNATIBOA



Andoni Pit (Lezama), Josu Tolín (Loiu), Urko Aurrekoetxea (Sondika) eta Jose Sagarduy (Castro)

Laguna Crush 2024an Txorierriko lau musikariek osatutako rock alternatiboko banda da. Kideek esperientzia daukate euskal panoramako beste talde batzuetan, adibidez, Midnight Road, Holly Brandy, Perroloco, Sakatu, Etsaieroak... Hain zuzen ere, Foo Fighters, Royal Blood, Berri Txarrak edota Extremoduro bezalako taldeen soinutik edaten du bere proposamenak, baina beti nortasun propioa bilatuz. Dagoeneko hiru kanta propio kaleratu dituzte beraien estudioko lehen lanerako.



KARTZAROT

HEAVY-HARD-ROCK



Asier Bikario (Lezama), Javi Gallego (Santurtzi), Jorge Cobelo (Bilbo), Rober Mellid (Bilbo) eta Sergio Robredo (Mungia)

Kartzarot taldea 1989an sortu zen eta lehen etapan hiru maketa grabatu zituzten. 1999an taldea banatu egin zen, baina Lezaman bost abestiko ezusteko kontzertu bat ematearen aitzakiarekin elkartu ziren berriro 2013an. Hard Rock eta heavy doinuetatik atera barik, bestelako doinuak aurkitu dituzte. Aurretik grabatu barik geratutako abestiak eta sormen berriekin beste hiru disko kaleratu dituzte, azkena 2026an: *From the silence*. Azken emaitzaren aurkezpen biran daude murgilduta.



KORROXION

PUNK-ROCK



Jorge Franco (Derio), Xabier Oleagoitia (Larrabetzu), Eduardo Revilla (Matiena) eta Igor Uruburu (Abadiño)

Korroxion 2001. urtean sortutako punk rock taldea da. 2005etik ematen dituzten kontzertuak eta bidean dagoeneko hiru disko autoekoitzi dituzte: *Bajo el yugo* (2007), *750gr* (2012) eta *Mundo sangrante* (2024). Orduetik zarata egiten jarraitzen dute hasierako gordintasun, zintzotasun eta amorru berdiñegaz. Taldearen soinua zuzena eta korroxiboa da, gitarra doinu gogorak, letra gordinak eta jarrera inkonformista erakusten dituzte.



MATXINADA

HERRIKOIA, ELEKTRONIKA, RAVE



Alatz Barrena (Zamudio), Ekaitz Askasibar (Zamudio), Eneritz Basaras (Derio), Oier Bravo (Sondika) eta Ander Aristondo (Bilbo)

Matxinada talde txorierritarra 2018an sortu zen, besteak beste, Zamudio, Derio edota Sondikako bizilagunek osatzen dute. Ia 10 urtera doan ibilbidean, bi EP landu dituzte: *Topa* (2021) eta *Gauero Lez* (2024). 2025ean, ordea, birsortu egin ziren, euskal musika eta kultura herrikoia inguruko ikerketa proiektu artisko bat garatzeko. Euskal musika herrikoia dute oinarri, baina rave mugimenduko doinuekin ere uztartzen dituzte. Adibide modura, erreferente dituzte Oskorri eta Hemendik At.



MIXERABLIAK COUNTRY-FOLK-ROCK



Larrabetzuko Joseba Ortuzar, Julen Martinez, Lander Bilbao, Peru Berazategi, Urdin Baraiazarra eta Aratz Astobieta (Loiu)

2018an sortu zuten larrabetzuarrek Mixerabliak taldea Aratz Astobieta loiuztarrarekin batera. 6-7 abesti argitaratu dituzte eta rock eta country folk doinuak dira nagusi beraien kantetan. Hain zuzen ere, influentzia handia daukate Jonhy Cash edota Willie Nelson bezalako musikari estatubatuarrengandik. Hala ere, bertako errefereteak ere badituzte: Ruper Ordorika, Niko etxeart eta Akelarre. Gaur egun aktibo daude eta herrietako jaietan, tabernetan zein ekitaldietan eskaintzen dituzte kontzertuak.



MOTELAK INDIE POP-ROCK



Victor Villamor (Asua-Erandio), Aingeru Gorrotxategi (Barakaldo), Diego de Isusi (Urduliz) eta Jon Montanchez (Gorliz)

Motelak taldea 2021eko amaieran sortu zen Jon, Diego eta Victor elkartzean. Indie eta pop-rock doinuak uztartzen dituzten beraien musikan. 2024an soinu plataforma ezberdinetan lehenengo albuma eskuragarri jarri zuten: sei abestiz osatutako *Motela* diskoa. 2025. urtean beste grabaketa bat egin zuten lau kantako *Zuloak zenbatzen* lana. Hala ere, oraindik kontzertuak ematen jarraitzen dute, Aingeru Gorrotxategi eta Ane de Isusiren aldizkako kolaborazioekin.



MUSIKA TXOROAK TRIKITRIXA



Ainhize Renedo (Zamudio), Enaitz Alonso (Lezama), Oihart Arrizubieta (Zamudio), Saioa Gomez (Sondika) eta Unax Guerrero (Zamudio)

Musika txoroak talde txorierritarra 2024. urtean sortu zuten Lezama, Sondika eta Zamudioko gazteek. Hain zuzen ere, taldea handitzen joan da azken urteetan gaur egungo egokitura arte. Herriko abestiak jotzen dituzte trikitixa zein panderoekin. Txorierriko bailarako hainbat ospakizun zein ekitalditan parte hartzen dute, jai giroak beraien musikarekin girotuz. Askotan ez da behar trikitixa eta panderoak baino gehiago giroa sortzeko.



NIÑO FERIAANTE PUNK-ROCK EKLEKTIKOA



Agustín Pérez (Larrabetzu) eta Sabin Gorostidi (Trapaga)

2001ean ezagutu ziren taldekideak, baina 2011ra arte ez zuten taldea sortu. 2013an eman zuten lehen kontzertua. Orain arte hiru lan argitaratu dituzte, eta hurrengo urtean laugarrena atera nahi dute azken *Larrugorritan* diskoaren jarraipena izatea nahi dutena. Hasieran, estilo sailkaezineko abentura poetiko-musikal gisa planteatu zuten, baina punk-rock eklektikoa dute oinarri.

📸 📷 🎵 🌐 📺 📄 www

OLAGUE ABESBATZA



Olague abesbatza Sondikan jaio zen 1964an eta koru musikari eskainitako ibilbide luzea dauka. Bere errepertorioa askotarikoa da, mota guztietako musika generoak abesten dituzte: erlijio abestiak, habanera herrikoiak, polifoniak, euskal kantak... Ahots larrien taldea da eta gaur egun 21 kide ditu. Hainbat zuzendarik zuzendu dute abesbatza, eta 2024. urtetik aurrera Eduardo Lopez da egungo arduradun nagusia.

OROAT

POP



Iñaki Bilbao (Erandio), Jesus Basterra (Sondika), Daniel Pastor (Bilbo/Jaen) Janire Medi (Bilbo) eta Javier Gutiérrez (Bilbo)

Iaz sortu zuten Oroat taldea Javier Gutierrezek, Janire Medik eta Iñaki Bilbao. Aurten, Jesus Basterra eta Daniel Pastor taldean sartu dira. Euskal pop musika jorratzen dute, folk edota amerikana soinuak uztartuz. Ken Zazpi, Bonny Light Horseman, Izaro edota Izaki Gardenak bezalako artistak dituzte erreferente. 2025eko abenduan, lehen abestia argitaratu zuten, *Nire aberría* eta 2026ko martxoan, bigarrena, *Bizitzako trena*. Hain zuzen, aurten atera nahi dute beraien lehen lan luzea: *Maskarak fuera!*.



PUEBLO 54

HIP-HOP



Antxon Intxaurtza (Lezama) eta Mario Fraile (Lezama)

Lezaman sortutako hip hop urbano estiloko taldea da Pueblo 54, eta Antxon Intxaurtza eta Mario Fraile lezamarrek osatzen dute. Orain dela 8-9 urte hasi ziren musika egiten eta zenbait kontzertu eman dituzte azken urteetan, besteak beste, Lezamako jaietan edota Sondikako Inauterietan. Hainbat genero ezberdin jorratzen dituzte beraien emanaldietan.



SAKATU

ELEKTROTXARANGA



Arkaitz Ducay (Sondika), Iker Ibarluzea (Derio), Patxi Barrutia (Sondika), Aimar Gambra (Erandio), Ainhoa Gallego (Algorta), Ane Zugaza (Bilbo), Iker Vasallo (Bilbo), Itxaro Liendro (Bilbo), Mikel Iglesias (Algorta) eta Xabier Derteano (Arrigorriaga)

Sakatu Elektrotxaranga 2014an sortu zen Euskal Herri osoko plazak eta kaleak dantzan ipintzeko asmoz. Esan eta egin, herri gutxi dira oraindik bertan jo ez dituztenak. Bidean parte hartzaile eta kolaboratzaile asko izan dituzte, gaur egungo egitura arte. Piperrak, Kortatu edota Eskorbutoeren bertsioak egiten hasi arren, urteen poderioz estilo ezberdin asko jorratzen dituzte gaur egungo estiloetara moldatuz: punk, ska, reggae, reggaeton, dancehall, techno, elektronikoa..



TABERNA IBILTARIA HERRIKOIA



Taberna Ibiltariak 2000. urtean eman zituen bere lehendabiziko pausoak, hau da, aurten 26 urte betetzen dituzte. Ibilbide luzean bi disko argitaratu dituzte eta Euskal Herri luze eta zabaleko hamaika herritan jo. Horrez gain, Madrilan, Bartzelonan, Irlandan edota Boisen ere jo dute. Lezamak izan ezik, Txorierriko herri guztiek dute ordezkariaren bat taldean eta inguruko beste herri batzuetako partaideek osatzen dute taldea. Euskal musika dute ardatz, atzokoa eta gaurkoa.



TXUMA OLAGUE

ABESBATZA



Txuma Olague abesbatza 1988an sortu zen Sondikako Gaztedia kultura elkarte bezala. 1995ean, Txuma Olague sortzailea hil zenean, bere izena hartu zuen. Abesbatzak Sondikan eta Txorierrin antolatutako ekintza kultural guztietan parte hartu du Euskal Herriko musika eta kultura hedatuz. Mota askotako musikak osatzen dute bere abesti bilduma: musika erlijiosoa zein profanoa, Euskal Herriko musika tradizionala zein modernoa, habanerak eta espiritual beltzak. Gaur egun 26 ahots nahasik osatzen dute abesbatza.



ZAMUDIOKO KAMARA KORALA



Zamudioko Amagoia Guezuraga, Ana Del Río, Izaro Zuazo, Lucia Marcos, Mónica Canales, Mónica Gómez eta Onintze Matías. Derioko Ainhoa Llorden, Amaya Milara, Beatriz Oporto, Fátima Raya, Olatz Begoña eta Vicky Abregu. Sondikako Natalia Zapatero eta Zuriñe Niembro. Iratxe Gezuraga zamudioztarrak zuzenduta

Zamudioko Kamara Korala 1987. urtean jaio zen. Bere ibilbide luzean bi lan luze argitaratu dituzte: *Zilarrezko doinuak* eta *Gabonak kantari*. Lehendabizikoa 25. Urteurrenean kaleratu zuten. Gaur egun, abesbatza 15 ahots zuri helduk osatzen dute, Berart Gartzia Gezuraga pianistak lagunduta. Zamudiorekin konprometituta, Kamara Koralak aktiboki parte hartzen du herriko bizitzan, baserrietan, herriko jaietan edo Olentzero egunean abestea bezalako tradizio maitagarriak zaindus.



ZOLI

ABESBATZA



Zamudioko Adirane Azcuna, Beñat Fernández, Entzia Ziordia, Gorka González, Izadi Renteria, Karle Marugay, Nahia Ayala, Oihane Dominguez, Sare Lekerika, Ane Olivares (Etxebarri) eta Berart Gartzia zuzendaria

2023an hasi zuen Zoli Abesbatzak bere bidea, herriko umeekin batera. Urtero hainbat ekitaldi eta irteera ospatzen dituzte eta artista askorekin eszenatokia konpartitu ere. Barikuro batzen dira Zamudioko kultur etxean datozen proiektuak prestatzeko: Egun Korala (Lezaman), Pazko Jaiak (Zamudion), EiBilbao (Miribillan) eta Korukiri (2027-Euskaldunan). Hainbat hizkuntzetan abesten dute, gaztelaniazko pop kanta klasikoetatik Afrikako kanta tradizionalak arte.





EMAUS

JONE GOITISOLO URIARTE
Komunitatearen eraldaketarako teknikaria

Errutinatik haratago, arnasgune bat Arantzazun

Beste urte batez, Emaus Gizarte Fundazioko parte-hartzaileak Arantzazun izan dira joandako hilabetean, hiru eguneko egonaldia eginez bertan. Egun haietan, parte-hartzaileek naturarekin konektatzeko aukera izan zuten, ibilaldiak eginez, Gomiztegiko Artzain Eskola eta Legazpi eta Oñati bisitatuz, talde dinamiketan parte hartuz eta elkarbizitzarako une lasaiak partekatuz.

Aipaturiko ekintza edo jarduerak ez ziren aisialdirako proposamen hutsak izan, bakoitzak bere erritmoa berreskuratzeko, tentsioak askatzeko eta zenbaiten begietara ikusezinak diren eguneroko borrorak atzean uzteko aukerak baizik. Izan ere, Arantzazuko inguruneak, bere isiltasun eta edertasunarekin, barne hausnarketarako eta lasaitasunerako baldintza ezin hobekak eskaintzen ditu.

Mota honetako esperientziak argi uzten digute esku-hartze soziala ez dela soilik baliabideak kudeatzera eta laguntza tekniko edo administratiboa ematera mugatu behar. Ongizatea, pertsonak beren osota-

sunean erdigunean jartzen dituen ikuspegi integral batetik ulertuta, ez da soilik oinarrizko beharrak asetuta izatea; ongizatea, arnasa hartzeko aukera izatea da, errutinatik aldentzea, eta norbere burua beste modu batean kokatzeko espazioak habitatu ahal izatea. Arantzazuko egonaldia horren adibide garbia da.

Bazterkeria egoeran dauden pertsonen eguneroko errutinak askotan zama handia dakarkie: administrazio prozedurak, etxebizitza edo lanaren inguruko ziurgabetasunak, osasun mentalaren aurkako borroka, sare sozial eza edo murriztua, estigmaren pisua... Eta askotan bakardade sentimenduak edo estres emozionalak markatzen die egunerokoa. Gauzak horrela, errutinatik ateratzea ez da kapritxo bat; behar bat baizik. Gizarteko edozein norbanakok bezala, atsedean hartzeko eta gozamenarako eskubidea dute, eta eskubide hori praktikan jartzea esku-hartze sozialaren parte ere bada.

Mintzagai dugun egonaldian zehar, Emauseko partaideek gizarteak ezarri-

tako hainbat eta hainbat etiketa horietatik aldentzeko aukera izan dute, beren burua beste leku batetik bizitzeko: komunitateko kide gisa, taldeko parte gisa, eta batez ere, pertsona gisa. Eta etiketa edo rol hori albo batera utzi ahal izatea oso garrantzitsua da. Hori baino gehiago baita edozein zerbitzutako partaide den norbanako bakoitza. Horrelako parentesiek autoestimua indartzen dute, harremanak sendotzen dituzte eta norberaren ahalduzkoa sustatzen dute. Askotan, esku-hartze planek ez dute kontuan hartzen dimentsio emozional eta sozial hori, baina ezin daiteke ukatu ezinbestekoa dela.

Azken batean, mota honetako esperientziak aditzera ematen dutena da, ongizatea ez dela soilik baliabideak izatearekin asebetetzen, bizitzari hura bizitzeko tarte emanek baizik. Eta tarte horiek sortzea, zaugarritasun egoeran dauden pertsonentzat bereziki, gizarte bidezkoago, humanoago eta bizigarriago baten aldeko apustua egitea da. ●

LIBURUDENDA PAPERGENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

librieriapapeleria_zamudio@hotmail.com
Gorbea kalea, 4 · ZAMUDIO · 944 522 910

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorierikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:
www.taxisaeropoertobilbao.com

DESCARGA APP-A

TAXI FEMADE

FREEPIK

NEURODOINUAK

IRATI GAÑAN RODRIGUEZ
Musikaria eta ikaslea



Musikak salbatuko gaitu¹

Denok dugu guretzat berezia den abesti bat. Gure lehenengo kontzertua gogorarazten digun kanta bat, garai jakin batera eramaten gaituen doinuren bat edo moduren batean lagundu gintuen musika pieza bat. Eta, oro har, abesti hori entzunda, nahikoa da urte batzuk atzera bidaiatzeko. Zergatik gertatzen da hori, baina?

Musikarekin daukagun lotura estu hori hertsiki loturik dago gure identitatearekin. Identitatea geure buruaren inguruan darabilgunez da: nor garen, zer gustatzen zaigun eta nola sentitzen garen. Ez da jaiotzetik ezarrita dugun zerbait, urteetan eraikitzen den zerbait baizik, bizitzan ditugun esperientzien eta harremanen ondorioz.

Bizipen guztiak garrantzitsuak dira nortasuna eraikitzeko; hala ere, etapa garrantzitsuenetako bat nerabezaroa da. Nerabezaroan gure lehentasuna definitzen hasten gara, gure ingurukoengandik bereizten eta “nor naiz ni?” galderari zehatzago erantzuten. Eta hain zuzen ere, aldi horretan, musikak berebiziko indarra hartzen du. Horregatik, nerabezaroan entzuten genuen musika gure bizitzako garrantzitsuena bihurtzen da askotan (Luque et al., 2025)².

Horren arrazoia ikuspuntu biologikotik azaldu daiteke: nerabezaroan, burmuina oso plastikoa da, hau da, etengabe aldatzen ari da, gure gorputzean gertatzen diren beste aldaketa batzuekin

batera. Aldi berean, emozioak intentsitate handiagoz sentitzen ditugu eta talde sozialek garrantzi handia dute (*The Teen Brain: 7 Things to Know*, n.d.)³. Testuinguru horretan, musikak bi eginkizun nagusi ditu: emozioak adieraztea eta talde bateko kide zarelaren sentiaraztea.

Horregatik lotzen dira, askotan, musika-mole batzuk identitate edo “tribu” jakin batzuekin. Jankera bereizgarri bat erabiltzea eta artista jakin batzuk entzutea eta euren kontzertuetara joatea ez dira gustu hutsak. Musikaren bidez, sentitzen duguna adierazten dugu, eta batzuetan, hitzez azaldu ezin duguna azaldu dezake abesti batek (Trehub et al., 2015)⁴.

Sentimenduez gain, emozioak kudeatzeko tresna da musika. Momentu jakin batean nola sentitzen garen, halako musika entzuten dugu arruntean: musika lasaia antsietatea murriztu behar dugunean, energia handiko abestiak geure burua motibatu nahi dugunean edo kanta tristeak momentu zailetan babestuta sentitu nahi dugunean (Zaatar et al., 2023)⁵. Horregatik sortzen ditugu egoera bakoitzeko playlist direlakoak: ikasteko, entrenatzeko, triste gaudenean edo zerbait ospatu behar dugunean.

Esan dezagun, bada, hainbeste pertsona ondo sentiarazten eta batzen dituen tresna bat ezin daitekeela entretenimendu hutsa izan. Musikak komunitateak sortzeko eta kontzertu batean ehunka (edo milaka) pertsona abesti bera kanta-

tzen jartzeko ahalmena du, eta ahalmen horixe da, hain zuzen, abesti asko inoiz guztiz ez ahazteko arrazoia. Abesti batzuk ez direlako melodia soilak, gure bizitzan moldatu gaituzten doinuak dira, oroitzapenez, emozioez eta bizipenez jantzita ditugunak.

Musika entzuten dugunean, neurri batean, gure buruari ere entzuten ari gara. Eta, agian, horregatik bihurtzen da musika identitatearen atal garrantzitsua: ez digulako soilik gure bizitzan eta egunerokoan laguntzen, ezpada, gure bizitza ere eraikitzen duelako. ●

¹ Gatibu, Musikak salbatuko gaitu diskoa eta kanta (2020)

² Luque, R. P., Suárez, M. L., & Del Carmen Olmos Gómez, M. (2025). Music, Identity, Culture and Adolescents: Bibliometric analysis during the research period (2016–2025). *Adolescents*, 5(4), 68. <https://doi.org/10.3390/adolescents5040068>

³ The Teen Brain: 7 Things to Know. (n.d.). National Institute of Mental Health (NIMH). <https://www.nimh.nih.gov/health/publications/the-teen-brain-7-things-to-know>

⁴ Trehub, S. E., Becker, J., & Morley, I. (2015). Cross-cultural perspectives on music and musicality. *Philosophical Transactions of the Royal Society B Biological Sciences*, 370(1664), 20140096. <https://doi.org/10.1098/rstb.2014.0096>

⁵ Zaatar, M. T., Alhakeem, K., Enayeh, M., & Tamer, R. (2023). The transformative power of music: Insights into neuroplasticity, health, and disease. *Brain Behavior & Immunity - Health*, 35, 100716. <https://doi.org/10.1016/j.bbih.2023.100716>

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Basalbeitiko Txakolina
Denominación de Origen

Basalbeitiko Txakolina

Goitioitza suloa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

HARATEGIA

ALBERTO

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

Enaitz

TABERNA

Ogitaratekoak
Anoak

640 26 84 15
94 455 42 15
Garaioitza, 74
Lezama



1 Haritz zaharrak



2 Jugatx(i)



3 Jugatxiko amabirjina

IÑAKI OLABARRIETA
JOSE ANGEL MENTXAKA

MENDITIK PATXADAZ

Jugatx(i)

Aurreko zenbakian Eskolunbe aipatu genuen gutxi erabilitako pertsona izentzat, Jose Mari Satrustegik bildutako izenen artean. Oraingoan, bere zerrendako beste izen bat dakargu, ezagunagoa: Jugatx edo Jugatxi. Datuen arabera, ehundik gora Jugatx daude, gehienak Bizkaian. Izenaren jatorrira joango gara, Arabako Zuiako ermita polit batera. Ibilbidea osatuko dugu Murgia, Jugo, Domaikia eta, Bitoriano herrietatik pasatuz, Atxabal mendira igoz, Oroko santutegia bisitatuz...

Arabako Zuia eskualdeko Murgia herrian hasi dugu ibilaldia. Gasteizerantz egin eta herria amaitzen denean, eskuinera jo, erreka gurutzatu eta lehen geldialdia: antepara huts batek errota bat dagoela adierazten du, bertaratu eta leihotik errota-harriak ikusi daitezke. Bidearen beste aldean, karobi baten ahoa aurkitu dugu, ia osorik estalita. Honen ondotik menditik gora doan ondo zapaldutako bidezidorra hartu dugu. Baso eder batetik joan gara, pagoak eta haritzak dira nagusi, batzuk oso-oso zaharrak. Kilometro eta erdi ingurura, Jugatx edo Jugatxi dago, artikulua honen arrazoia den ermita ederra. Landaz, barkoaz eta mahaiz inguratuta dago, eta nola ez, inguru hauetan ohikoa den bolatokia ere badauka. Itxita dagoenez, ezin izan gara sartu, baina Amabirjinaren irudi gotikoa hegoaldeko horman ikusi daiteke, eguzki-erloju baten ondoan. Beste aldetik datorren bidexka hartu dugu, baina las-

ter utzi eta ezkerrean doan bidezidorretik egin dugu aurrera. Behin asfaltera helduta eskuinean Jugo herria dago. Ulgergarriago egiten da ermitaren izena: Jugo + atx. Jugo herriaren haitza ei da. Kanpandorreko zikoinak egin digu ongi etorria.

Aukera ezberdinak ditugu orain: Murgijara errepidetik itzuli, basotik doan bidezidor markatua jarraitu edo ibilbidea luzatu. Hirugarren hau aukeratu dugu, errekarantz doan errepidetxo, eta behin ibaia gurutzatuta ezkerretara egin dugu pista zabal batetik. Berriz errepidera helduta, laster sartu gara Domaikian. Eliza itxita dagoenez, ezin izan ditugu ikusi barruko leiho erromanikoak. Bidezidor batek hilerriraino eraman gaitu. Honen bazterretik, pista eroso batetik apurka apurka altura irabazten joan gara. Goian, une oro, gure hurrengo helmuga ikusten da, Atxabal mendiko haitzak eta antena. Pista jarraituz gero, Oroko santutegira heldu daiteke berehala, baina guk eskui-

netara egin dugu Atxabal tontorrerantz. Kontuz! Apur bat lehenago beste pista batek tontorra inguratzen du, baina hori ez da gure bidea.

Harrizarren ondotik tontorrera heldu gara. Bista ederrak daude, Oroko santutegia ere ederto ikusten da. Bertara joateko, azken bihurgunetik irteten den bidezidor ia ikusezin bat hartu dugu, beti ia mendiaren gailurretik doana. Ez da bide zaila, baina kontuz ibili behar da. Gutxira Oroko santutegira heldu gara. Beherago ikusten den harrizko kruzerotik begiratokira jaitsi gara. Atzera egin barik, larretik behera egin dugu Orotik Murgijara doan oinezko pista aurkitu arte, zuhaitz artean. Antzianako meategi batek laku polit bat utzi du bide bazterrean. Bitorianora helduta, eliza handia bisitatu ostean, bidezidorretik herrira jaitsi gara. Kale artean eta harrizko bi zubi pasatu ostean, Murgijara heltzea besterik ez da falta hamalau kilometroko ibilbide ederra osatuz. ●



4 Jugoko eliza



5 Oroko santutegia Atxabaletik




6 Oroko krutzeroa

Ibilbidea

Distantzia: 13,9 km

Desnibel positiboa: 412 m

Eskuratu
hemen
ibilbidearen
track-a



AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419





WIKIMEDIA / FERNANDO LOSADA RODRÍGUEZ

ESTITXU PÉREZ CASTRO
 @txiribita_mundi

HERBARIOA

Irusta gorria

Trifolium pratense. Hirusta gorriari belardietako edo ilargi-erdiko hirusta ere esaten zaio. Fabazeoen edo lekadunen familiakoa da, alpapa bezala. Europako hego-ekialdean, Asiako mendebaldean eta Afrikako ipar-ekialdean du jatorria.

IDENTIFIKAZIOA

Belar-landarea da, 50zm-ko altuerara iritsi daitekeena. Hostoak hiru obalo berdetan banatuta daude eta orban zuri oso bereizgarria dute. Lore-buruak purpura edo arrosa kolorekoak dira. Beste hirusta mota bat ere badago: *Trifolium repens* (hirusta zuria). Lorea zuria da, eta medikuntza erabilpen berberak ditu. *Trifolium* espezie asko daude, batzuetan bereizten zailak dira. Gomendatzen dizuet tokiko gida bat erabiltzea jakiteko zein *Trifolium* espezie dituzuen zuen inguruan.

HABITATA

Iberiar penintsula ia osoan dago. Larreetan, belardietan, lur hezeetan eta lorategietan aurkitu dezakegu, belar mota ezberdinetan asko erabiltzen baita. Batzuetan erreka eta iturrietatik gertu ere badaude.

LORATZEA/BILTZEA

Bere loreak eta goiko hostoak erabiltzen dira. Udaberrian biltzen da, eta hilabete batzuk egon daiteke loreak ematen.

Garrantzitsua da ondo aukeratzea zer bilduko dugun (saihestu zimel samar dauden landareak, lizuna dutenak edo orbanak hostoetan).

SUKALDARITZAKO ERABILERAK

Hirusta ia osoa jangarria da:

- Loreak entsaladetan, edari freskagarrietan eta gozogintzan erabili daitezke.
- Bere hosto gazteak gordinik jaten dira entsaladan edo kanapeetan, baina kontuz, ez da katilu erdia baino gehiago jan behar.
- Hostorik handienak 10 edo 15 minutuz sukaldatuta jan daitezke, espinakak edo zerbak balira bezala.
- Sustraiak ere sukaldatuta jan izan dira. Ernatutako haziak entsaladetan edo kanapeetan jan daitezke.

Garrantzitsua! Fabazeoen familiakoa denez, hirusta gorriak gasak eragin ditzake; gordinik janez gero, kantitate gutxi jan behar da; horregatik, gutxienez hamar minutuz sukaldatzea gomendatzen da.

Ozpin medizinala: mineralak eta bitaminak aprobetxatzeko modu egokia da.

Ozpin hori edari freskagarri batean, uretan, tisanan edo entsalada batean bota daiteke.

EZAUGARRI MEDIZINALAK

Isoflabona ugari dauka (landare-estrogenoak). Kumarinak eta azido salizilikoak ditu. Gainera, A, B eta C bitamina asko dauka, baita kaltzioa, kromoa, kobaltoa, magnesioa eta potasioa ere. Proteina eta E bitamina iturri handia da.

Birmineralizatzailea denez (alpapa edo ortiga bezala), profesional askok organismoa goratzen laguntzeko erabiltzen dute.

BARNE-ERABILERA

SENDAGARRIAK

- Menopausiarekin lotutako sintomak txikitzen laguntzen du: osteoporosia prebenitzea, itolarriak, antsietatea eta suminkortasuna gutxitzea.
- Normalean espektortzaile eta hanturaren aurkako gisa erabili izan dira katarro, gripe, ezful, bronkitis, faringitis eta abarretan.
- Odolaren eta linfaren araztailea. Diuretiko ere bada. Larruzaleko arazoei ere bada.



WIKIMEDIA / JACQUES LE MOYNE DE MORGUES

Landareak batzeko aholkuak

tan laguntzeko erabiltzen da bereziki, adibidez, dermatitisean, baita gaixotasun erreumatikoetan ere.

- Azido salizilikoa duenez, giharretako, artikulazioetako eta buruko minak arintzeko erabiltzen da.

KANPOKO ERABILERA SENDAGARRIAK

- Larruazaleko arazoak: orbanak, dermatitisa, ekzema eta psoriasis.
- Gingibitisa, kolutorio-formako infusio kontzentratua.
- Zauriak, kisteak, ultzerak eta eguzki-erredurak.
- Hirusta-olioa edo kataplasmak erabiltzea.

ERREZETAK

Infusioa: 5-10g hirusta gorriko lore katilu bakoitzeko. Hamar minutuz infusionatzen utzi eta esan egiten da. Gomendagarria da lore freskoekin egitea. Tisana horrek berak ahozko eta kanpoko erabilera ematen digu, esate baterako, garbiketarak edo kolutorioa.

Kataplasma: birrindu lore freskoak,

bota bol batera eta gehitu ur, hidrolato edo infusio pixka bat. Ondo irabiatu, eta tratatu beharreko eremuan aplikatu.

Beste landare batzuekin konbinatu daiteke; adibidez, dermatitis edo zauri baterako bada, kalendularekin edo hiperikoarekin konbina dezakegu; erredua baterako bada, agian ezta gehitu diezaiokegu.

Oleatoa: lore freskoekin egiten da, landare-olioz estaltzen da eta alasan beratzen uzten da 6 astez. Denbora hori igarotakoan, iragazi eta ontziratu egiten da. Oleato hori zuzenean erabili dezakegu, edo baltsamo bat egin, tratatu beharreko eremuan aplikatzeko. Larruazala malgu mantentzen laguntzen du, eta orbaintzaile ona eta hanturaren aurkakoa da.

KONTRAINDIKAZIOAK

Ez da hartu behar haurdun bagaude, ordezkio hormona-terapiarekin, antikoagulatzaileak kontsumitzen baditugu, ezta melilotoarekin batera ere (*Melilotus officinalis*). ●

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen %20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

IZ
ILE APAINDEGIA
946036943
Txantxapen 42
ZAMUDIO
iz@apaindegia.com

PATXI
DENTAL ARITZARAKO ZERBITZU INTEGRALA
40 URTE ZUGANDIK GERTU
www.patxikoop.eus
f t i p
Neimber Poligonoa / Etxezarre 4, 48170 / Zamudio / 944 522 587 / info@patxikoop.eus

ZAMUDIO
Loteria Nazionala
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com



SUKALDARITZA

Jakiei zaporea indartzeko *pastillak*

Iñaki Astorkizaren errezeta



OSAGAIAK:

- 150 gr oilasko paparra
- Kipula bat
- Azenario bat
- 3-4 berakatz atal
- 1-2 porru
- Espeziak norbere gustura

ERREZETA

Barazki guztiak txiki-txiki egin eta olio apur batekin sueztitu ahalik eta dena bigun egon arte. Oilasko paparra zati txikietan gehitu, eta, eginda dagoenean, irabiagailutik pasatu.

Gelditzen den pasta hori ontzi baten ipini (tuppper azal bat) eta izozkailuan

eduki ordu baten. Izozkailutik atera, zatiak egin eta izozteko boltsa baten sartu zatiak.

Oharra: oilaskoa erabili beharrean berdin-berdin erabili daitezke okela zein arraina.



Zuk ere errezetak gurekin partekatu nahi baduzu, idatzi aikor@aikor.eus helbide elektronikora.

ELORRIETA
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETAK...
MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547
Uribe kalea 12 behea - Derio 944 540 386

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraigu Facebook-en

Ale-apaindegia

M^a Antonia Llodio TXPI

Txoriario etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

DENBORA-PASAK

ZAZPI EZBERDINTASUNAK

Topatu zazpi ezberdintasun Sondikako argazki honetan. Zer falta da? Zer dago sobera? zer dago aldatuta?



EKAINEKO AGENDA

1, astelehena

16:15 **Parkour erakustaldia** LEZAMA Eskolan

18:30 **Bizkaiera ikastaroa** SONDIKA

2, martitzena

16:00 **Alzheimerra eta beste demen-
tziak ezagutzen hitzaldia** ZAMUDIO Zamudiotorre

3, eguaztena

18:00 **Menopausia ongizatearekin bi-
zitzea ikastaroa** DERIO Kultur Birikan

4, eguena

19:00 **Peru Calabazaren ipuin
bildumen aurkezpena** LARRABETZU Angulerin

19:00 **Etxeko izozkiak egiteko sukal-
daritza ikastaroa** DERIO Larraberrin

5, barikua

19:00 **Maiatza musikalaren kontzertua**
LARRABETZU Andra Mari elizan

19:30 **Zamudio kalean: Elfo** ZAMUDIO Agirre Lehendakaria plazatik hasita

20:00 **Aire ahizpak kontzertua** LOIU Lauroetako ermitan

6, zapatua

Igerilekuen irekiera DERIO

9:45 **Mini Camp Txef** DERIO Larrabarrin

10:00 **CD Sindikaren jaia** SONDIKA

14:00 **Gaztegunearen irteera: bazkaria
+ paintball** LEZAMA Gaztelekutik

15:00 **Kanoetan ibiltzera irteera**
LEZAMA Gaztelekutik

19:30 **El raro de los 90'** antzezlan
SONDIKA Kultur etxean

7, domeka

XXIII. Txakolin eguna LEZAMA Egitarau osoa 2. orrialdean

8, astelehena

18:30 **Bizkaiera ikastaroa** SONDIKA

9, martitzena

10:30 **Dolua eta galera zaintzaileen-
gan hitzaldia** DERIO Kultur Birikan

10, eguaztena

9:00 **Nagusien txangoa Santanderrera**
DERIO Nagusien etxetik

18:00 **Menopausia ongizatearekin bi-
zitzea ikastaroa** DERIO Kultur Birikan

11, eguena

19:00 **Etxeko izozkiak egiteko sukal-
daritza ikastaroa** DERIO Larraberrin

12, barikua

San Antonioak Eleizalden LARRABETZU Zaldi probak + Eguen Bakoitiek

Lasterketa solidarioa LARRABETZU Zaporeak elkartearen alde

13, zapatua

Eskolako jaia LARRABETZU

Eskolako jaia LEZAMA

Hegalariaken jaia SONDIKA

9:45 **Mini Camp Txef** DERIO Larrabarrin

19:00 **Ibizako Gaua** LOIU Gozkoetxe jatetxean

14, domeka

XLI. Bizkaiko Abesbatzen Eguna
LEZAMA

Ganadu eta artisau azoka LARRABETZU Ardi moztailak + Kantarrana band

15, astelehena

18:30 **Bizkaiera ikastaroa** SONDIKA

16, martitzena

17:30 **Kirol formakuntza pedagogikoa**
LEZAMA Kultur aretoan

18, eguena

17:30 **Kirol formakuntza pedagogikoa**
LEZAMA Kultur aretoan

19:00 **Literaturaz berbetan: Akabo
Laura Mintegirekin** LARRABETZU Goikointxurretan

19:00 **Izar Argia musika eskolako kurtso
amaierako kontzertua** LARRABETZU Andra Mari elizan

19:00 **Etxeko izozkiak egiteko sukal-
daritza ikastaroa** DERIO Larraberrin

21, domeka

Sindikako jaien hasiera SONDIKA Egitarau osoa 11. orrialdean

21, domeka

13:00 **Nazioarteko XCO Txapelketa**
LEZAMA Green series

22, astelehena

NANA eta pasaporte egitea
ZAMUDIO Sabino Arana plazan

13:00 **Bertsolari gazteen saioa**
LARRABETZU Plazako aterpean

17:30 **Kirol formakuntza pedagogikoa**
LEZAMA Kultur aretoan

23, martitzena

San Juan bezperako sua

25, eguena

17:30 **Kirol formakuntza pedagogikoa**
LEZAMA Kultur aretoan

26, barikua

21:00 **Musika kalean: Bostak eta laure-
nak** ZAMUDIO Fernan taberna aurrean

27, zapatua

Lagatzu eguna ZAMUDIO Egitarau osoa 39. orrialdean

28, domeka

Kinder girls antzezlan DERIO Gurea Aretoan

LAGATZU EGUNA

EUSKAL JAIA 2026



Ekainak 26, barikua

21:00

Musika kalean BOSTAK ETA LAURENAK taldeagaz

📍 Fernan tabernaren ondoko plazan

Ekainak 27, zapatua

10:30

KALEJIRA

📍 Lehendakari Agirre plazan hasita

11:00

LAGATZU XTREME II herriko taldeen artean

13:00

Animazioa herri guztian zehar BERTOKO eta KANTARELUXen eskutik.

15:00

Herri bazkaria Agirre plazan

📄 Nagusiak: 22 € / Umeak: 15 €

*Txartelak herriko dendetan eta tabernetan salgai.
Erosteko azken eguna ekainaren 23an.*

17:00

BROKEN IZOTZ taldeak lagunduta euskal abestiak taldeakaz

ZURESKU egurrezko jolas tradizionalak

20:00

Erromeria HEUK ESAN! taldeagaz

Uda bizi, euskara eroso ikasten



Ikastaro trinkoak
Etxe ondoan
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



**FAMILIA
BARNETEGIAK**
Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko



**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**
Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko
Udako ibiltaria



**ONLINE
IKASTAROAK**
B1-B2-C1-C2
Azterketak prestatzeko



PRAKTIKATU
Udan ere,
mintzataldeak
martxan; hurbildu
zure euskaltegira



Victoria Zarco, Gasteizko AEKko ikaslea.

UDAKO EUSKARA-IKASTAROAK

Informazio gehiago



LANA ETXETA B2 C1
EUSKARAZ



673 200 100 / 946 464 000
aek@aek.eus
www.aek.eus

TXORIERRIKO AEK

B2, C1 MAILAK PRESTATZEKO
Ikastaro trinkoak

Uztaila 80 ordu: 2tik 30era | Izen ematea: ekainaren 26ra arte
*Taldea sortuz gero, eskolak Mungiaiko Kinttopeko euskaltegian izango dira

Iraila 80 ordu: 2tik 29ra | Izen ematea: uztailaren 15era arte

**2025-26 ikasturtean euskaltegian B2 eta C1
maila aitortuta dutenentzat:**

30 ordu: 15etik 28ra | Izen ematea: irailaren 11ra arte

Diruz lagundutako ikastaroak

Dirulaguntza bereziak C1 16-18 urte bitartekoentzat

Informazioa eta izena emateko:

Txepetxa euskaltegia, Gorbea kalea 5, behe-Derio
94 454 39 67 · 607 59 87 94 · txepetxa@aek.eus